



IPARRALDEA/EUSKAL HERRIA 2004-2024

ADIERAZLE GALERIA

Argitaratze-data: 2025ko abendua.

Argitaratzailea: Gaindegia. Euskal Herriaren garapen sozial eta ekonomiko iraunkorrerako behategia.

Internet helbidea: www.gaindegia.eus

Edukien, diseinu eta datuak: Aztiker.

Testu originalak: Aztiker, Gaindegia.

Argazkiak: Foku, Gaindegia.

Babesleak:



IPARRALDEA/EUSKAL HERRIA

2004-2024

ADIERAZLE GALERA

AURKIBIDEA

2004-2024 ADIERAZLE GALERIA

IPARRALDEA 2025: DATU NAGUSIEN SINTESIA12

DEMOGRAFIA.....16

1.1 AZALERA (Ha.) 17

1.2 BIZTANLERIA ETA BERE BILAKAERA 1975-2022 18

1.3 BIZTANLERIA DENTSITATEA (biztanleria/ km²) 21

1.4 JAIOTZAK ETA JAIOTZA TASA..... 22

1.5 HERIOTZAK ETA HERIOTZA TASA..... 25

1.6 HAZKUNDE NATURALA 28

1.7 EUSKAL HERRIKO EGITURA DEMOGRAFIKOA 30

1.8 ZAHARTZE INDIZEA..... 33

1.9 IKASKETA MAILA 34

1.10 EUSKARA 37

1.11 FAMILIAK 39

ETXEBIZITZA44

2.1 ETXEBIZITZA KOPURUA..... 45

2.2 ETXEBIZITZA MOTA..... 47

2.3 ETXEBIZITZEN OKUPAZIO EGOERA..... 49

2.4 ETXEBIZITZA NAGUSIEN ANTZINATASUNA..... 50

2.5 ETXEBIZITZA EDUKITZE ERREGIMENA 52

2.6 ETXEBIZITZEN OKUPAZIO DENBORA..... 54

2.7 ETXEBIZITZA ALDAKETAK..... 56

LAN MERKATUA ETA EKONOMIA58

3.1 ENPRESA DEMOGRAFIA 59

3.2 LAN MERKATUA..... 67

GAINDEGIA 203082



Iñaki Dorronsoro
Lehendakaria

HITZAURREA

Hogei urte bete dira aurten GAINDEGIA sortu zenetik, eta 2020-2021eko mundu mailako osasun krisiak garai berrietara egokitu beharra ekarri digu guri ere. Hala, egokitzen horretan dihardugu joan deneko bi urtean, eta, aurten, zerbait berezia egiteko eta GAINDEGIAren berpiztea profitatzeko, erronka jarri diogu geure buruari Zuzendaritza Batzorde berrian: hogei urte honetan sozioekonomiaren alorrean munduan gertakari benetan garrantzitsuak gauzatu direlarik (gero aipatuko ditudanak), bi hamarkadotako jarraipen estatistikoaren txostena lantzea. Horri ekin diogu hilabeteotan, eta txosten hori aurkituko duzu datozen orrialdeotan, irakurle.

Jarraian datozen orrien edukia eta testuingurua aurkeztu ondoren, utz iezadazu gure egitekoaz gogoeta xume bat zurekin elkarbanatzen.

Gogoan dut estrategia, enpresan zuzenean praktikatzeko, hainbat lurralde erakundetako arduradunei laguntzen eta unibertsitatean irakasten aritutako garai haietaz. Ikasi genuen helburu estrategikoak lan-ildo estrategikoen bitartez lortzen direla eta lan hori era sistemiko eta dinamiko batean ingurune-faktore batzuek baldintzatuta egoten dela.

Gogoan dut bai barneko bai kanpoko informazioak duen garrantzia. Eta “adimen estrategikorako” deitzen genituen sistemak garatzen nola saiatu ginen han eta hemen.

Helburu estrategikoek —edozein dela ere erakundea— oinarritzko arrakasta-faktoreak zehazten dituzte, dagozkien adierazleekin. Lan-ildo estrategikoek, berriz, jarduera erabakigarriak zehazten dituzte bakoitzari dagozkion adierazleekin. Eta, azkenik, ingurune faktore gakoak ingurune adierazleek zehazten dituzte. Euskal Herriaren kasuan ingurune hori beste herrialdeak eta mundua izanik.

Oso garbi daukat datu batuketa ez dela informazioa eta gutxiago ezagutza. Beste modu batez esanda, informazioak eta datu kopuru multzoak ez dakar ezinbestean ezagutza. Ezagutzak gogoeta eta analisis eskatzen baititu. Horregatik, eskura dauden datuek zentzua eta bihotza daukan sistema bat osatu behar dute. Eta bihotz hori pertsona, enpresa edo herri baten helburu estrategikoek ematen diote.

Datuak ez dira neutroak, Euskal Herriaren helburu estrategikoak —interes eta botere joko asimetrikoen adierazle izanik— neutroak ez diren bezalaxe. Ganibetak ere sukaldeko kajoian sartuta neutroak izaten dira, baina handik aterata berdin balio dute patata-arrautzopil gozo bat egiteko edo bakarren bati lepoa mozteko.



Estrategia eta adierazleak txanpon baten bi aldeak dira. Herri estrategiarik gabe, adierazle multzo handi bat neurtzeak zentzua eta lehentasunak ezkutatzeak arriskua dauka, eta adierazlerik gabe inongo zentzurik gabe noraezean ibiltzekoa. Euskal herritarrok, zoritxarrez, hiru adierazle sistema elikatzen ditugu. Adierazle sistema oso baten gabezia herri estrategia ezaren ezaugarri garbia da. Errealitate horrek herri baten zentzua ukatzen du, eta sakabanaketa egituratzen.

Duela 32 urte, 1992an, Robert Kaplanek eta David Nortonek Aginte Koadro Integral famatua proposatu zuten enpresetako datu finantzarioetatik harago joateko. Nahiko antzera, 2013an Joseph Stiglitzek eta Amartya Senek, berrogeita hamalau adierazleak osatuta, Giza Garapenaren Indizea proposatu zuten BPGaren mugak gainditzeko. Geroztik, antzeko adierazle sistemak azaltzen joan dira han eta hemen mundu guztian. GAINDEGIAk, orain dela hogeitazazpi urte, 29 adierazleak osatutako sistema hartu zuen, eta urte hauetan guztietan bere txostena argitaratu du.

Hogei urte honetan, munduan eta Europan, Euskal Herriari, Nafarroa Garaiari, gure herriari eragin dioten eta, aldi berean, aukerak eskaini dizkieten gertakari geopolitiko, ekonomiko, demografiko, teknologiko eta kultural asko izan dira.

Munduko biztanleria 5.660 milioitik 7.240 milioira handitu da, baina hazkunde tasa geldotzen joan da. Muturreko pobrezian bizi diren pertsonen kopurua gutxitu egin da, baina ezberdintasun ekonomikoa handitzen ari da. Mundua geroz eta urbanoagoa da, eta inoiz ez dute hainbeste pertsonak migratu. Aldi berean, mundua zahartzen ari da, eta gatazken ondorioz beraien herrialdeetatik alde egindako pertsonen kopurua errekorrak hausten ari da; bereziki, emakume eta haurren kasuan.

Ekonomiaren hazkunde mugagabea gurtzen duen zibilizazio honek arriskuan jarri ditu munduaren klima, baliabide eta ekosistemen orekak. Ezin da aurretik jakin teknologia digitalak eta azken olatuaren (adimen artifizialaren) abiadurak eragindako aldaketak disruptiboek norantz egingo duten.

2001eko irailaren 11ko erasoan ondoren, 2007-2008an finantza krisi handia etorri zen. 2020an, berriz, COVID 19aren krisi ekonomiko eta soziala, eta 2022an Errusiak Ukrainaren inbasioa abiatu zuen. Azkenik, 2023an Israelen eta Palestinaren arteko gerra krudela hasi zen.

Erdigune teknoekonomikoa Asia ekialdera mugitzen joan da, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo Estatu Batuen nagusitasunaren kaltetan. Europak, berriz, erdi periferiara joatea beste erremediorik ez duela ematen du. BRICS blokea sendotzen eta zabaltzen joan da Mendebaldeko nagusitasunari aurre eginez.

Eszenatoki horretan, Euskal Herriaren eta Iparraldeko lurraldeen ibilbidearen argazki deskribatzaile bat egiten saiatu gara, gogoetarako eta estrategia finkatzeko material estatistiko koherentea eskura jarrita.

Erakunde publiko, elkarte, kutxa eta bazkide eta boluntarioen emozio eta laguntza ekonomikorik gabe ez zen posible izango. Eskerrik asko denoi.



2004
2024

ADIERAZLE
GALERIA



SARRERA



Euskal Herriaren errealitate sozioekonomikoa ezagutzea zailtasun bereziz betetako eginkizuna da, lurraldeak ez baitu estatus administratibo bakarra eta, ondorioz, ezta estatistika-sistema bateraturik ere. Hego Euskal Herriak —Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak EUSTAT bidez, eta Nafarroa Garaiak NASTAT bidez— bere datu-iturri propioak baditu ere, Ipar Euskal Herriak ez du bere erakunde estatistikorik. Horrek hutsune esanguratsuak sortzen ditu, eta bereziki eskatzen du Frantziako estatistika-erakunde orokorraren datuak (batez ere INSEErenak) udalerri mailatik abiatuta berreskuratzea, iragaztea eta berrantolatzea.

Testuinguru horretan kokatzen da lan hau: Euskal Herri osoaren ezagutza sakonago eta zehatzago baterantz egindako ahalegina. Helburua ez da soilik datuak bildu eta antolatzea, baizik eta lurralde osoan gertatzen diren joerak modu bateratuan ulertzea, interpretazioa erraztea eta gizarteari begirako informazio esanguratsua eskaintzea. Horretarako, lurralde bakoitzeko datu estatistikoak eskuratu, konparagarritasunaren mesedetan egokitu eta kategoria desberdinen arteko koherentzia bermatzeko beharrezko eraldaketak egin dira.

Lan hau Gaindegiak gidatzen du, Euskal Herri osoko ikuspegi sozioekonomikoa lantzen duen behatoki gisa. Gaindegiaren eginkizunetako bat da, hain zuzen, datu sakabanatuen artean zubiak eraikitzea, metodologiak garatzea, informazioa bateratzea eta interpretazio partekatu baterako oinarriak eskaintzea. Prozesu horretan eta lan honetarako, Aztiker Ikergune Soziologikoa izan dugu bidelagun. Egindako datu-bilketa eta tratamendu tekniko zehatza funtsezkoa izan da; haren ekarpenari esker, estatistika-iturrien arteko heterogeneitatea gainditu eta hutsuneak modu fidagarrian osatu ahal izan dira. Horrenbestez, txosten honek Euskal Herriaren ezagutzan sakontzen laguntzen du, lurralde osoaren garapenerako ikuspegi integratu eta orekatuago bat eraikiz.



0

IPARRALDEA 2025: DATU NAGUSIEN SINTESIA

IPARRALDEA 2025:

DATU NAGUSIEN SINTESIA

Txostenak Euskal Herri osoaren ikuspegi sozioekonomikoa lantzen du, arreta berezia Ipar Euskal Herrian jarritz. Horretarako, Gaindegia eta Aztikerrek gidatutako lan honetan, Iparralderako udalerrri mailako datuak iturri ofizialetik jaso (zehazki INSEEtik), eta EUSTAT eta NASTATEkoekin bateratu dira. Horrela Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetarako datuak sortu eta gainerako lurraldeen arteko konparagarritasuna bermatu da.

Datu nagusiei erreparatuz, azalera eta biztanleriari dagokionez, Iparraldearen barruan Nafarroa Behereak 132.520 ha. ditu (%45 inguruko pisua Iparraldean), Lapurdik 85.568 ha. eta Zuberoak 81.453 ha. Biztanlerian Lapurdi nagusi da (278.970, 2022), Nafarroa Behereak 32.699 eta Zuberoak 14.525; 1975–2022 bitartean Iparraldeko populazioa 227.855-tik 325.721-era igaro da, baina joerak lurraldeen artean desberdinak izan dira: Lapurdik hazkunde handia, Nafarroa Behereak egonkortasuna eta Zuberoak jaitsiera.

Dentsitatean Iparraldearen batez bestekoa 109,7ra igo da (biztanle/km²) 1975etik 2022ra, eta Euskal Herri osoan dentsitatea 155,1ra igo da. Marko horretan, Lapurdik balio altuak ditu: 2022an 326,0 biztanle/km². Jaiotzak eta jaiotza-tasak beherantz doaz 2008tik 2024ra: Iparraldean jaiotzak murriztu dira (Lapurdin 2.368tik 2.133ra) eta jaiotza-tasak ere jaitsi (Lapurdin 9,8tik 8,3ra; Zuberoan 8,3tik 6,3ra). Heriotzak igo egin dira eta, ondorioz, 2024an hazkunde naturala Iparraldeko hiru herrialdeetan negatiboa da (Lapurdin -813, Nafarroa Beherea -164, Zuberoa -85).

Demografia egiturari dagokionez, biztanleriaren piramideak antzekotasun orokorra erakusten du lurralde guztietan: talde zabalena 40–54 urte bitartekoa da. Zahartzearen indizeak azken hamarkadetan gora egin du; Zuberoak balio handienak ditu (2022an 212,4).

Familia-egituren eraldaketa ematen ari da azken urteetan. 2011–2022 tartean, esanguratsuena, haurrik gabeko bikote familien kopurua %17 igo izana da (36.786tik 43.046ra). Ama bakarreko familien hazkundera moderatua izan da eta nagusiki 2011–2016 bitartean, eta aita bakarreko familien kopurua txikia izanda ere, %65,2 gehitu da (2.110tik 3.486ra); hazi ez den familia mota bakarra familia tradizionala izan da; horrek familia-eredu anitzen indartzea islatzen du.

Iparralde osoan euskara ezagutzen dutenen portzentajea 1991tik 2021era %33,1etik %20,1era jaitsi dela nabarmentzen da; hiru herrialdeetan galera handiak izan dira, bitartean Hegoaldeko lau probintzietan gora egin du.

Hezkuntza mailan igoera markatua dago: goi-mailako tituludunen proportzioa handitu da, bereziki emakumeen artean; Lapurdin goi-mailako tituludunen pisua %56,7koa da.

Etxebizitzetan hazkunde nabarmena ikusten da 1968–2022 tartean (Iparraldean 78.000tik 216.000 etxebizitzara), etxebizitza-parkea gaztetu da azken urteetan (2006tik aurrera eraikitakoak handitu). Jabetza eta alokairu egitura kontrastatzen du Ipar eta Hego artean: oro har, Ipar Euskal Herrian alokairuaren pisua altuagoa da. Alde handiena Lapurdin ikusten da, alokairuen pisua %41,9ko izanik. Iparralde barruan, Nafarroa Beherean eta Zuberoan jabetza piska bat altuagoa da. Okupazio-denbora geroz eta laburragoak dira, mugikortasuna handitzen ari delarik.

Iparraldeko enpresa demografiak hazkundera erakutsi du azken urteotan: 2014ko 24.836 enpresetatik 2023an 38.551ra igaro da, eta gehikuntza hori batez ere zerbitzuetan, jarduera espezializatuetan eta merkataritza-ostalaritzako sektoreetan pilatu da. Enpresa-egituraren ezaugarri nagusietako bat enpresa txikien pisu handia da, 1–5 langile bitarteko establezimenduek sare ekonomikoaren bi herenen inguru hartzen baitute, eta jarduera berrien sorrera urteko erritmo bizian mantendu da, batez ere Lapurdin. Bestalde, enpresen zaharberritzea eta belaunaldi-aldaketa ez dira homogeneoak lurraldeen artean, baina oro har ikus daiteke enpresa-parke berrituago eta dibertsifikatuago bat ari dela osatzen.

Lan merkatuari dagokionean, 2011–2022 aldian aktiboak 182.457tik 194.467ra igo diren arren, lurraldeen arteko bilakaera ezberdina da: Lapurdik hazkunde jarraitua du, Nafarroa Behereak egonkortasuna eta Zuberoak beherakada moderatua. Okupazioan antzeko joera ikus daiteke —Iparralde osoak 118.412tik 134.888ra egin du gora— baina Zuberoak okupatuen galera izan du (6.202tik 5.759ra). Langabezia-tasak ziklikoki mugitu dira (2011: %7,8; 2016: %8,9; 2022: %7,4), eta emakumeen zein gizonen okupazio-tasek goranzko bilakaera izan dute —emakumeenak 9,3 puntu eta gizonenak 4,7 puntu hazi direlarik—, Iparraldea Hegoaldeko probintzien gainetik ez bada ere.



1

DEMOGRAFIA

1.1

AZALERA (Ha.)



2022ko datuen arabera, Iparraldeak 296.802 hektareako azalera du. Lurralde horren barruan, Nafarroa Beherea da hedadurarik handiena duen herrialdea, 132.520 hektarearekin; haren atzetik kokatzen da Lapurdi, 85.568 hektarearekin. Zuberoa da txikiena, 81.453 hektarearekin. Hiru lurraldeek osatzen duten azalera metatua 296.802 hektareakoa da, beraz Nafarroa Behereak Ipar Euskal Herri osoaren %45 inguru biltzen du, Lapurdik %29 eta Zuberoak %27 inguru.

Euskal Herri mailan, azalera osoa 2.061.467 hektareakoa da. Lurraldeen arteko banaketa honetan, Nafarroa Garaia da hedadurarik handiena duen eremua, 1.038.380 hektarearekin; hau da, Euskal Herri osoaren erdia baino gehiago. Ondoren datoz Araba (304.187 ha.), Bizkaia (221.520 ha.) eta Gipuzkoa (197.839 ha.).

Azalaren proportzioari dagokionez, horrela banatzen dira zazpi herrialdeak (handienetik txikienera):

- Nafarroa Garaia: 1.038.380 ha., %50,37
- Araba: 304.187 ha., %14,76
- Bizkaia: 221.520 ha., %10,75
- Gipuzkoa: 197.839 ha., %9,60
- Nafarroa Beherea: 132.520 ha., %6,43
- Lapurdi: 85.568 ha., %4,15
- Zuberoa: 81.453 ha., %3,95

● Euskal Herriko azalera (ha. 2025)



1.2

BIZTANLERIA ETA BERE BILAKAERA 1975-2022

2022ko datuei dagokienez, Ipar Euskal Herriko biztanleriaren banaketa honakoa da: Lapurdik 278.970 biztanle ditu, Nafarroa Behereak 32.699, eta Zuberoak 14.525. Beraz Ipar Euskal Herriko populazioaren %80 baino gehiago Lapurdin biltzen da.

1975etik 2022ra bitartean, Ipar Euskal Herriko biztanleria etengabe handitu da. Ipar Euskal Herriaren eremuan, populazioa 227.855 biztanletik 325.721era igo da, hau da, 97.866 biztanle gehiago 47 urteko epean. Hazkundera ez da berdina izan lurralde guztietan.


Denboran zeharreko bilakaeran, hiru lurraldeen joerak bereizi egiten dira: Lapurdik goranzko ibilbide jarraitua izan du, Nafarroa Behereak egonkortasun handiagoa erakutsi du igoera eta jaitsiera txikiekin, eta Zuberoak beheranzko joera mantendu du.

Lapurdik izan du igoerarik handiena: 1975ean 178.764 biztanle zituen eta 2022an 278.970, beraz 100.000tik gorako gehikuntza suposatzen du. Nafarroa Beherean, kopuruak ez du aldaketa handirik izan: 1975eko 30.919 biztanleetatik 2022ko 32.699era igaro da, tartean jaitsiera eta igoera txikiak tartekatu direlarik. Zuberoan, berriz, beherakada iraunkorra ageri da: 1975eko 18.629 biztanleetatik 2022ko 14.525era jaitsi da, 4.000 biztanle inguru gutxiago izateraino.


Euskal Herri osoaren eboluzioa kontuan hartuta, populazioa 2,7 milioitik (1975) 3,19 milioira (2022) igo da. Lurraldeen arteko aldeak handiak dira: Arabak 1975eko 223.028 biztanleetatik 2022ko 333.908ra egin du gora; Nafarroa Garaian ere igoera handia izan da, 485.040tik 664.514ra. Gipuzkoak hazkunde txikiagoa izan du (657.255tik 723.241era). Bizkaiak, aldiz, 1980ko hamarkadaren ondoren izandako jaitsiera gainditu zuen arren, 1975 eta 2022 arteko aldaketa txikia da (1.109.456tik 1.148.677ra).

Alderaketa horren barruan, Ipar Euskal Herriko bi joera nabarmentzen dira datuen arabera: batetik, Lapurdik hazkunde handia izan du Euskal Herriko beste lurralde dinamikoekin pareko mailan; bestetik, Zuberoa da 1975-2022 tartean populazioa modu jarraituan galdu duen Euskal Herriko lurralde bakarra. Nafarroa Behereak, berriz, aldakortasun txikia izan du, eta epe osoan zehar antzeko kopuruetan mantendu da.


Iparraldeko biztanleria bilakaera. 1975-2022




Euskal Herriko biztanleria bilakaera. 1975-2022




Euskal Herriko biztanleria. 2022



● Ipar Euskal Herriko biztanleriaren bilakaera, urte-multzoka. 1975-2022



● Euskal Herriko biztanleriaren bilakaera, urte-multzoka. 1975-2022



1.3


BIZTANLERIA DENTSITATEA (biztanleria/ km²)

1975etik 2022ra bitartean, Ipar Euskal Herriko biztanleria dentsitatea etengabe handitu da. Ipar Euskal Herri osoan, dentsitatea 76,8 biztanle/km²tik 109,7 biztanle/km²ra igo da. Lurraldearen barruan, Lapurdi da dentsitate altuena duena, 1975ean 208,9 biztanle/km² zituen eta 2022an 326,0raino igaro da. Nafarroa Beherearen dentsitatea, aldiz, 23,3tik 24,7 biztanle/km²ra igaro da tarte horretan, eta Zuberoak dentsitatea murriztu egin du, 22,9tik 17,8ra.


Hego Euskal Herriko lurraldeetan ere aldaketak ikusten dira. Araban dentsitatea 73,3 biztanle/km²tik 109,8ra igaro da, Nafarroa Garaian 46,7tik 64,0ra, Gipuzkoan 332,2tik 365,6ra, eta Bizkaian 500,8tik 518,5era. Euskal Herri osoan, dentsitatea 131,1 biztanle/km²tik 155,1era igo da 1975etik 2022ra.

Beraz, Euskal Herriko dentsitate handiena Bizkaian dago, Gipuzkoa eta Lapurdi antzeko balioetan aurkitzen dira, eta baxuenak Nafarroa Beherea eta Zuberoak dituzte.

Ipar Euskal Herriko biztanleria dentsitatea (biztanle/km²). 1975-2022



Euskal Herriko biztanleria dentsitatea (biztanle/km²). 1975-2022



1.4

JAIOTZAK ETA JAIOTZA TASA

2024ko datuen arabera, Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan jaiotzak honela izan ziren: Lapurdi 2.133, Nafarroa Beherea 258 eta Zuberoa 102. Jaiotza-tasetan, eskuragarri dagoen azken datuen arabera (2022koak), Nafarroa Behereak 8,6ko tasa izan zuen, Lapurdik 8,3koa, eta Zuberoak 6,3koa. Hau da, Zuberoak ditu jaiotza gutxien eta baita jaiotza-tasa txikiena ere bai.

2008tik 2024ra, jaiotza kopuruetan beheranzko joera nabaria ikusten da. Lapurdi 2.368 jaiotzetik 2.133ra jaitsi da, Nafarroa Beherea 312tik 258ra, eta Zuberoa 123tik 102ra. Jaiotza-tasek ere jaitsiera adierazgarria izan dute: Lapurdik 9,8tik 8,3ra, Nafarroa Behereak 9,6tik 8,6ra, eta Zuberoak 8,3tik 6,3ra. Nafarroa Beherearen kasuan, 2022an igoera txiki bat ikus daiteke, 8,6ra iritsiz, baina bilakaera orokorra beheranzkoa da.


2024ko datuen arabera, Euskal Herriko herrialdeak kopuru absolutuan handienetik txikienera honela sailkatzen dira: Bizkaia 6.421, Gipuzkoa 4.422, Nafarroa Garaia 4.568, Araba 2.094, Lapurdi 2.133, Nafarroa Beherea 258 eta Zuberoa 102.

Jaiotza-tasei dagokienez, 2022ko datuak kontuan hartuta, Nafarroa Behereak eta Lapurdik altuenak dira, hurrenez hurren 8,6 eta 8,3; 6,5eko tasatik behera daude Bizkaia (6,0), Gipuzkoa (6,2) eta Zuberoa (6,3). Euskal Herriko batez besteko jaiotza-tasa 6,6 da 2022an.


Euskal Herriko guztizko jaiotzak 31.147tik 19.998ra jaitsi dira 16 urtetan. Jaiotza-tasetan ere beheranzko joera nabaria dago: Euskal Herriko tasa 2011n 9,9koa zen, 2016an 8,6ra jaitsi zen eta 2022an 6,6ra. Gainera, aldeak dauden arren, 2011tik 2022ra, jaiotza tasen beheranzko joera hori herrialde guztietan ematen da. Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeak, jaitsiera txikiena pairatu dutenak dira. Handienetik txikienera:

- Araba: 10,7tik 6,8ra, -3,9 puntu
- Gipuzkoa: 10,0tik 6,2ra, -3,8 puntu
- Nafarroa Garaia: 10,6tik 7,2ra, -3,4 puntu
- Bizkaia: 9,2tik 6,0ra, -3,2 puntu
- Zuberoa: 8,3tik 6,3ra, -2,0 puntu
- Lapurdi: 9,8tik 8,3ra, -1,5 puntu
- Nafarroa Beherea: 9,6tik 8,6ra, -1,0 puntu

● Ipar Euskal Herriko jaiotza kopurua. 2008-2022




● Euskal Herriko jaiotza kopurua. 2008-2022




● Euskal Herriko jaiotza tasak (1.000 biztanleko). 2011-2022

	2011	2016	2022
Iparraldea	2.816	2.768	2.683
Lapurdi	2.398	2.397	2.316
Nafarroa Beherea	298	259	280
Zuberoa	126	114	92
Araba	3.429	3.074	2.267
Bizkaia	10.687	9.151	6.861
Gipuzkoa	7.064	6.015	4.508
Nafarroa Garaia	6.747	5.894	4.759
Euskal Herria	30.749	26.904	21.083

● Ipar Euskal Herriko jaiotza tasak (1.000 biztanleko). 2011-2022



● Euskal Herriko jaiotza tasak (1.000 biztanleko). 2011-2022



1.5

HERIOTZAK ETA HERIOTZA TASA

2024ko datuen arabera, Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan heriotza kopuruak honela izan ziren: Lapurdi 2.946, Nafarroa Beherea 422 eta Zuberoa 187. Heriotza-tasetan, eskuragarri dagoen azken datuen arabera (2022koak), Nafarroa Behereak 15,0 tasa izan zuen, Zuberoak 14,5 eta Lapurdik 11,8. Kopuru absolutuetan Lapurdi nagusi da, eta Zuberoa txikiena. Tasa arloan, Nafarroa Beherea da altuena, Zuberoa bigarren eta Lapurdi azkena, baina guztiek 11tik gorako tasa dute.

2008tik 2024ra, heriotzak Lapurdin eta Nafarroa Beherean igoera izan du, Zuberoan ez. Lapurdi 2.433 heriotzetik 2.946ra igo da, Nafarroa Beherea 377tik 422ra, eta Zuberoa 195etik 187ra jaitsi egin da. Heriotza-tasek ordea igoerak izan dituzte hiru lurraldeetan, Nafarroa Behereak 12,2tik 15,0ra, Zuberoak 12,4tik 14,5era, eta Lapurdik 10,0tik 11,8ra.

2024ko datuen arabera, Euskal Herriko herrialdeak kopuru absolutuan handienetik txikienera honela sailkatzen dira: Bizkaia 12.041 heriotza, Gipuzkoa 7.325, Nafarroa Garaia 6.042, Araba 3.026, Lapurdi 2.946, Nafarroa Beherea 422 eta Zuberoa 187.


Heriotza-tasei dagokienez, 2022ko datuak kontuan hartuta, Ipar Euskal Herriko herrialdeak altuenak dira, Nafarroa Beherea (15,0) eta Zuberoa (14,5) lehenengo biak; Lapurdi 11,8rekin. Hego Euskal Herriko herrialdeetan tasak txikiagoak dira, 9,5etik 11,4ra bitartekoak. Euskal Herriko batez besteko heriotza-tasa 10,8 da 2022an.

Euskal Herriko heriotzak 2008tik 2024ra igoera nabaria izan dute, bai kopuru absolutuan bai heriotza-tasetan. 2008tik 2024ra, Euskal Herriko guztizko heriotzak 27.734tik 31.989ra igo dira.


Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeak, bereziki Nafarroa Beherea eta Zuberoa, tasen igoera handienak izan dituzte. Hego Euskal Herriko herrialdetan, igoera txikiagoak ikusten dira, batez ere Nafarroa Garaian eta Araban. Handienetik txikienera, heriotza-tasaren aldaketa 2011tik 2022ra:

- Nafarroa Beherea: 12,2tik 15,0era, +2,9 puntu
- Zuberoa: 12,4tik 14,5era, +2,0 puntu
- Gipuzkoa: 8,9tik 10,9ra, +2,0 puntu
- Bizkaia: 9,5tik 11,4ra, +1,9 puntu
- Lapurdi: 10,0tik 11,8ra, +1,8 puntu
- Araba: 7,9tik 9,5era, +1,6 puntu
- Nafarroa Garaia: 8,1tik 9,5era, +1,4 puntu

● Ipar Euskal Herriko heriotza kopurua. 2008-2022




● Euskal Herriko heriotza kopurua. 2008-2022




Euskal Herriko heriotza tasak (1.000 biztanleko). 2011-2022

	2011	2016	2022
Iparralde	3.031	3.301	3.990
Lapurdi	2.471	2.709	3.296
Nafarroa Beherea	378	379	492
Zuberoa	189	213	210
Araba	2.519	2.688	3.170
Bizkaia	11.012	11.759	13.152
Gipuzkoa	6.301	6.776	7.872
Nafarroa Garaia	5.158	5.727	6.317
Euskal Herria	28.028	30.251	34.509

Ipar Euskal Herriko heriotza tasak (1.000 biztanleko). 2011-2022



Euskal Herriko heriotza tasak (1.000 biztanleko). 2011-2022



1.6

HAZKUNDE NATURALA

2024ko datuen arabera, Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan hazkunde naturala negatiboa izan da: Lapurdi -813, Nafarroa Beherea -164 eta Zuberoa -85.

Hazkunde naturala negatiboak erakusten du jaiotzak heriotzak baino gutxiago direla, eta joera hori, gora-beherekin, baina denbora tarte osoan mantendu da. 2008tik 2024ra, Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan hazkunde naturala negatiboa da:


- Lapurdi: -65etik 2008an, -813ra 2024an.
- Nafarroa Beherea: -65etik -164ra.
- Zuberoa: -72tik -85era.

2024ko datuen arabera, Euskal Herriko herrialdeak kopuru absolutuan handienetik txikienera (kopuru negatibo handiena Bizkaia du, eta txikiena Zuberoak) honela sailkatzen dira:


- Bizkaia: -5.620
- Gipuzkoa: -2.903
- Nafarroa Garaia: -1.474
- Araba: -932
- Lapurdi: -813
- Nafarroa Beherea: -164
- Zuberoa: -85

2008tik 2024ra, hazkunde naturalaren joerak ezberdinak izan dira herrialde guztietan. Urte guzti horietan Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan hazkunde negatiboa izan den bitartean, Araban eta Nafarroa Garaian 2017-2018rarte positiboa izan da, ondoren balio negatiboetara pasatzeko. Bizkaia aldaketa hori 2009an eman zuen eta Gipuzkoak 2013an.

● Ipar Euskal Herriko hazkunde naturala. 2008-2022



● Euskal Herriko hazkunde naturala. 2008-2022



1.7

EUSKAL HERRIKO EGITURA DEMOGRAFIKOA

Orain arte ikusitako dinamikek Euskal Herriko egitura demografikoan emaitza zehatz bat uzten dute. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoak adinaren eta generoaren arabera antzeko egitura demografikoa partekatzen dute, baina bakoitzak bere ñabardura propioak erakusten ditu.

Genero orekari dagokionean, ume eta gazteen artean gizonen presentzia emakumeena baino apur bat handiagoa da, baina adin-tartea igaro ahala oreka aldatzen doa. Helduen talde batzuetan, emakume kopurua gizonezkoa baino handiagoa bihurtzen da, eta joera hori nabarmen areagotzen da 65 urtetik gorakoetan. Azken adin-tartean, 80 urtetik gora, emakumeen nagusitasuna nabaria da hiru lurraldeetan. Horrela, Ipar Euskal Herriko demografiak adinaren arabera aldatzen diren sexuen arteko proportzioak erakusten ditu.

Adinari dagokionean hiru lurraldeetan antzeko forma hartzen du biztanleriaren piramideak: talde zabalena 40 eta 54 urte bitartekoa da, eta haren atzetik 65-79 urtekoen multzoa eta 25-39 urtekoena datoz. Gazteen portzentajeak ere oso parekoak dira, 15 eta 24 urte artekoak %8,5etik %9,8ra bitartekoak baitira hiru lurraldeetan.

80 urtetik gorako presentzia ere ia maila berean kokatzen da: Lapurdin eta Nafarroa Beherean %8 inguruan, eta Zuberoan zertxobait handiagoa bada ere, %9,8.

Hala ere, antzekotasun horien artean ñabardura esanguratsuak ageri dira. Lapurdik, biztanleriarik handiena izanik, portzentaje txikiena du 15 urtetik beherakoetan eta 15-24 urte bitartekoetan. Biztanleria gaztearen proportzio apal hori kontrastean doa Nafarroa Beherearekiko, non haurren taldeak pisu handiena duen Ipar Euskal Herri osoan (baita Euskal Herri osoan ere bai). Zuberoak, berriz, bestelako joera erakusten du: adinekoen presentzia da nagusi, bai 65-79 urte bitartekoetan, bai 80 urtetik gorakoetan, hiru lurraldeetako baliorik altuenak bilduz.


Bestalde, Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeen adin-banaketa ereduak antzekotasun nabarmenak erakusten dituzte Hego Euskal Herrikoekin. Euskal Herri osoaren egitura demografikoa aztertuta, lurraldeen arteko antzekotasun sendoak ageri dira lehen begiratuan. Adin-piramideak antzeko forma hartzen du lurralde guztietan: helduen taldeak —bereziki 40-54 urte bitartekoak— dira multzorik zabalena, eta haren atzetik datoz 25-39 urtekoak. Gazteen presentzia, berriz, moderatua da lurralde osoan zehar; 15-24 urtekoek proportzio estu baina homogeneoa osatzen dute, %9 eta %11 artean ia nonahi. 15 urtetik beherako multzoak ere antzeko pisua du lurralde guztietan, %12-15 bitartean.

Antzekotasun horien artean, ordea, ñabardura batzuk agertzen dira. Lurralde batzuetan gazteen proportzioa zertxobait handiagoa da —Nafarroa Garaian, esaterako—, eta beste batzuetan adinekoen presentzia pisutsuagoa da, Bizkaian eta Zuberoan bezala. 65-79 urteko taldea sendo agertzen da Euskal Herri osoan, baina haren pisua zertxobait aldatzen da lurraldez lurralde; antzera gertatzen da 80 urtetik gorakoekin, nahiz eta portzentajeak orokorrean %6-8 inguruan mantendu.


Generoaren arabera ere, Euskal Herriak oreka nabarmena erakusten du: emakumeak pixka bat gehiago dira lurralde guztietan, baina aldeak oso txikiak dira, eta joera bera errepikatzen da iparraldetik hegoaldera. Horrela, egitura demografikoa oso antzekoa da Euskal Herri osoan, baina ñabardura sotilek erakusten dute zein lurraldetan den gazteagoa edo zaharragoa populazioa, eta non duten adin-talde jakin batzuek presentzia handiagoa.

● Euskal Herriko adin-piramidea, herrialdeen arabera (%). 2022


	Lapurdi		Nafarroa Beherea		Zuberoa		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Nafarroa Garaia		Euskal Herria	
%	♀	♂	♀	♂	♀	♂	♀	♂	♀	♂	♀	♂	♀	♂	♀	♂
15 urte baino gutxiago	6,8	7,3	7,6	8,3	7,2	7,0	6,9	7,3	6,1	6,4	6,6	6,9	7,2	7,6	6,6	7,0
15 eta 24 urte bitartekoak	4,6	5,1	4,2	5,1	3,9	4,5	4,5	4,8	4,5	4,8	4,9	5,2	5,3	5,6	4,7	5,1
25 eta 39 urte bitartekoak	8,7	8,3	7,7	7,5	6,4	6,6	7,9	8,0	7,7	7,8	7,6	7,8	8,2	8,4	8,0	8,0
40 eta 54 urte bitartekoak	10,2	9,5	9,7	9,9	9,0	8,9	12,0	12,5	11,9	12,0	11,6	11,9	11,7	12,1	11,5	11,6
55 eta 64 urte bitartekoak	7,3	6,3	6,9	7,2	8,0	8,1	7,3	6,9	7,9	7,4	7,3	7,1	6,8	6,8	7,4	7,0
65 eta 79 urte bitartekoak	9,9	7,9	8,9	8,9	10,2	10,3	8,1	7,2	8,8	7,3	8,6	7,5	7,4	6,7	8,6	7,4
80 urte edo gehiago	5,3	2,7	4,8	3,1	6,0	3,7	4,0	2,5	4,9	2,6	4,5	2,5	3,9	2,3	4,6	2,6




Iparralde, 2022




Lapurdi, 2022



Nafarroa Beherea, 2022



Zuberoa, 2022




1.8

ZAHARTZE INDIZEA


Zahartze-indizearen datuak aztertuta, Ipar Euskal Herriko lurraldeek eta Euskal Herri osoak adierazten dute adineko biztanleen proportzioa etengabe handitzen ari dela azken hamarkadetan. Lapurdin, 2011ean indizea 144,2 zen; 2016an 156,8ra igo zen, eta 2022an 183,6ra. Nafarroa Beherean ere hazkunde jarraitua ikusten da, 2011ko 126,4tik 2022ko 161,6ra, baina Lapurdiko balioak beti gainditu ditu azken urteetan. Zuberoako egoera nabarmentzen da: 2011n 181,7ko indizea zuen, 2016an 204,0ra igo, eta 2022an 212,4ra, Ipar Euskal Herriko zahartze-indize altuena eta alde nabarmenena osatuz. Horrela, Zuberoak populazio adinekoen proportzio handiena du eta,aldi berean, zahartze prozesu azkarrena bizi da bertan.

Hegoaldeko probintzietan, Bizkaia nabarmendu da, 2022an 209,2ko indizearekin, eta Araba eta Gipuzkoa hurbil daude 168–186 tartean. Nafarroa Garaiak, aldiz, zahartze-indize baxuena du Euskal Herri osoan, 2022an 149,5ekoa.

Ipar Euskal Herriko zahartze indizea. 2016-2022



Euskal Herriko zahartze indizea. 2016-2022




1.9

IKASKETA MAILA


Ipar Euskal Herriko biztanleriaren hezkuntza-mailak goranzko bilakaera argia izan du 2011 eta 2022 artean. Oinarrizko titulurik gabeko pertsonen pisua nabarmen jaitsi da hamarkadan zehar, ia hamar punturen galera metatuz. Aldi berean, CAP/BEP eta lanbide ikasketa maila ertainak egonkor mantendu dira, nahiz eta azken urteetan zertxobait behera egin duten; Batxilergoa, bestalde, poliki baina etengabe hazi da.

Aitzitik, benetako jauzia goi-mailako heziketan gertatu da: unibertsitateko edo goi-mailako LHko titulazioa dutenen proportzioa asko handitu da, eta gaur egun biztanleriaren zati gero eta handiago bat ordezkatzen du.

● Ipar Euskal Herriko biztanleriaren ikasketa-maila eta bere bilakaera (%). 2011–2022



● Euskal Herriko biztanleriaren ikasketa maila (%)¹. 2022




¹ Ikus metodologia oharrak

Datu hauek ikusita, argi ikusten da Euskal Herriko lurraldeen artean alde esanguratsuak daudela hezkuntza-mailari dagokionez. Hegoaldeko lau lurraldeetan (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia), Bigarren Hezkuntzako lehen etapa edo maila baxuagoak dituztenen proportzioa handia da, %35etik %42ra bitarte. Egitura nahiko antzekoa dute hiru probintzia historikoek, Nafarroa Garaian portzentaje hori are handiagoa delarik (%41,5). Aldiz, Iparraldean (eta bere hiru lurraldeetan), maila baxuenak askoz apalagoak dira, %19,8 (10 urtetan ia 10 puntu jaitsi ondoren).

Kontrara, Hegoaldeko lurraldeetan goi-mailako tituludunen pisua %37 eta %44 artean dabil, Ipar Euskal Herrian %55a gainditzen duen bitartean. Oro har, Lapurdi nabarmentzen da %56,7rekin, goi-mailako tituludunen proportzio oso altuarekin. Nafarroa Beherea (%47) eta Zuberoa (%41,1) ere goi-mailako formazio handiko lurraldeak dira.

● Ipar Euskal Herriko biztanleriaren ikasketa maila generoaren arabera (%). 2022



2022ko datuek erakusten dute Ipar Euskal Herrian emakumeek gizona baino presentzia handiagoa dutela bai goi-mailako ikasketetan, bai bigarren hezkuntzako bigarren etapakoetan. Goi-mailako titulua dutenen artean emakumeak %20,4 izatera heltzen dira, gizonen %15,8ren aldean; Batxilergoan eta Brevet profesionalaren pareko titulazioetan ere antzeko dinamika gertatzen da: emakumeak %10,1 dira eta gizonak %8,8.


Aitzitik, lanbide-maila ertainean (CAP/BEP), gizonak dira nagusi: %14, gizonak, eta %11,1 emakumeak. Oinarrizko titulurik gabeko edo BEPC/DNB mailan bestelako joera ikus daiteke: emakumeen proportzioa altuagoa da (%11,9) gizonena baino (%7,9), nahiz eta bi taldeetan maila baxuen presentzia oro har txikia den.

Beraz, oro har, 2022ko irudia konplexua baina argigarria da: emakumeak goi-mailan nabarmen presentzia handiago dute, baita hezkuntza-maila baxuenetan ere. Gizonak lanbide maila ertainean gehiago kontzentratzen dira.

2011–2022 artean Ipar Euskal Herrian hezkuntza-mailaren bilakaerak emakumeen aurrerapena nabarmenagoa izan dela erakusten du. Goi-mailako ikasketak dituztenen artean hazkundea handia da gizonezkoetan (+4,1 puntu), baina are handiagoa emakumezkoetan (+5,5 puntu). Hau da, emakumeek geroz eta presentzia gehiago hartzen dute unibertsitate eta goi-mailako LH ikasketetan. Batxilergo edo baliokideko titulazioetan bi generoek hazkunde txikia baina egonkorra izan dute (+0,4 puntuko igoera).

Beheranzko joera nabarmena ageri da oinarritzko titulazioetan eta lanbide ertainetan, eta hor ere genero arteko aldeak interesgarriak dira. CAP/BEP mailako titulazioa zertxobait jaitsi da gizonezkoetan (-0,8) eta apur bat gutxiago emakumeetan (-0,2). Titulurik gabekoen edo BEPC/DNB mailakoen beherakada oso handia da bi generotan, baina bereziki emakumezkoetan (-5,7 puntu), gizonezkoen jaitsiera ere handia bada ere (-3,7).

● Ipar Euskal Herriko biztanleriaren ikasketa maila generoaren arabera. Aldea 2011-2022 (%)




1.10

EUSKARA


Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan euskara ezagutzen dutenen portzentajea azken hamarkadetan nabarmen jaitsi da. Lapurdi %26,6tik %16,1era jaitsi da 1991tik, Nafarroa Beherean/Zuberoan %62,4tik %47,5era, eta Iparralde osoan %33,1etik %20,1era.

Hego Euskal Herrian, berriz, euskara ezagutza handitzen ari da, batez ere Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban. Gipuzkoan euskaldunen portzentajea %43,7tik %51,8ra igo da 1991tik 2021era; Bizkaian %16,5etik %30,6ra, eta Araban %7tik %22,5era. Nafarroan ere gorakada txikia gertatu da, %9,5etik %14,1ra.

● Iparraldeko 16 urtetik gorako euskaldunak (%). 1991-2021



● Euskal Herriko 16 urtetik gorako euskaldunak (%). 1991-2021




Bizitzan zehar euskaldundu direnen portzentajeak aztertuta, ikusten da herrialde batzuetan euskalduntze prozesuak askoz ere pisu handiagoa duela beste batzuetan baino. Euskal Herri osoan, batez beste, biztanleen %10,9 euskaldundu dira bizitzan zehar. Araban (%15,3), Bizkaian (%13,7) eta Gipuzkoan (%11,9) euskara lehen hizkuntza izan ez duten baina euskaldun bilakatu diren pertsonen proportzioa handia da; Nafarroan ere %6,1era heltzen da.

Ipar Euskal Herrian, aldiz, bizitzan zehar euskaldunduak askoz gutxiago dira: Iparralde osoan %3,5, Lapurdin %3,4 eta Nafarroa Beherea/Zuberoan %4,0.

Egungo datuei erreparatzeaz gain, bilakaerari erreparatzen badiogu, azken 30 urteetan, Araban %3tik %15,3ra pasatu da; hau da, bost aldiz gehiago. Bizkaian %2,6tik %13,7ra igo da, eta Gipuzkoan %4,9tik %11,9ra, nahiz eta azken urteetan gorakada apalagoa izan. Nafarroan ere %1,5etik 1991n, %6,1era pasa da 2021ean.

Iparraldean, aldiz, euskalduntzeak ez du masa kritiko handirik lortu eta pisua txikia izaten jarraitzen du. Bilakaerak maila apalak eta gorakada oso geldoa erakusten ditu. Iparralde osoan %2,8tik %3,5era baino ez da igo 30 urteetan, eta Lapurdin datua izoztu da azken hamarkadan (%3,4). Nafarroa Beherea/Zuberoak erakusten du aldaketa dinamikoena (1991n %1,7 izatetik 2021ean %4 izatera), baina hala ere proportzioa txikia da.

● Euskal Herria lehen hizkuntza erdara eta egun euskalduna direnak (%). 1991-2021




1.11

FAMILIAK

Familien datuak aztertu aurretik, oharra egin beharra dago². Iparraldean eta Hegoaldean bikoteak “familia” kontzeptuan modu ezberdinean hartzen dira. Ipar Euskal Herriaren kasuan, INSEEn arabera, familia —zentsuen testuinguruan— gutxienez bi pertsonak osatzen duten etxeko zatia da, bikote bat (ezkondua edo ez, seme-alabekin edo gabe) edo heldu bat seme-alaba batekin edo gehiagorekin (familia monoparentala) izanik. Hegoaldearen kasuan antzeko da, baina bikote ez ezkonduak ez dira familia kontsideratzen.

Hori esanda, 2022ko datuen arabera, Bizkaia da familia kopuru handiena duen lurraldea, 321.103 familiarekin, eta Gipuzkoa (197.250) eta Nafarroa Garaia (172.058) jarraitzen dute. Arabak ere kopuru ertaina du, 90.918 familia izanik. Lapurdik 76.991 familia ditu, Nafarroa Behereak 9.313, eta Zuberoak 4.236, kopuru txikiena Euskal Herrian.

Euskal Herriko familia kopurua. 2022




Ipar Euskal Herriko familia-kopuruaren bilakaerak, 2011tik 2022ra, hazkunde orokorra erakusten du: 2011n 80.706 familia zeuden, 2016an 84.745era igaro ziren, eta 2022an 90.386ra, hots, %12ko gehikuntza.

Lapurdi da hazkunde handiena izan duen lurraldea: 2011n 67.897 familia zituen, eta 2022an 76.991ra igo da, %13,4ko hazkundearekin. Nafarroa Behereak ere bilakaera positiboa du, baina proportzio txikiagoa, %8,3; 2011n 8.597 familia zituen, eta 2022an 9.313.


Zuberoaren kasua bestelakoa da: 2011n 4.359 familia zeuden, baina 2016an 4.218ra jaitsi, eta 2022an 4.236ra igo, %2,8ko murrizketa orokorra 2011-2022 tartean.

² Ikusi ohar metodologikoak

Iparraldeko Euskal Herriko familia kopuruaren bilakaera. 2011-2022



Iparraldeko Euskal Herriko familia kopuruaren bilakaera (%). 2011-2022



2022ko datuen arabera, Euskal Herriko familia-motak deskribatzen direnean, lurraldeen arteko aldeak eta antzekotasunak agertzen dira.


Aita bakarra duten familiek proportzio txikia dute lurralde guztietan: gehienetan %3–5 bitartean, Nafarroa Garaia pixka bat handiagoa izanik, %5,0rekin. Lapurdik %4,0 ditu, Nafarroa Behereak %2,9 eta Zuberoak %3,1.

Ama bakarra duten familien proportzioa handiagoa da: Gipuzkoa (%15,1), Araba (%15,4), Bizkaia (%17,3) eta Nafarroa Garaia %17,5arekin nabarmenduz. Iparraldeko hiru lurraldeek ehuneko horien azpitik daude: Lapurdi %13,6, Zuberoa %10,4 eta Nafarroa Beherea %8,5.

Bikote familia haurrik gabe, etxe berean bizi direnak, Iparraldean proportzio handiak dituzte: Zuberoan %50,5, Lapurdin %47,7 eta Nafarroa Beherean %45,9. Hegoaldean, berriz, proportzio hauek baxuagoak dira: Araba %34,5, Gipuzkoa %33,4, Bizkaia %32,4 eta Nafarroa Garaia %27,3.

Bikote familia gutxienez haur batekin, etxe berean bizi direnak, joera kontrakoa ageri da: Hegoaldeko lurraldeetan proportzio altuagoak daude —Nafarroa Garaia %50,2, Gipuzkoa %48,0, Bizkaia %46,5 eta Araba %46,2—, eta Iparraldekoetan baxuagoak: Lapurdi %34,8, Nafarroa Beherea %42,7 eta Zuberoa %36,0.

● Euskal Herriko familia egitura (%). 2022



Iparraldeko herriaren datuen arabera, azken hamarkadetan familia-moten bilakaera desberdina izan da.

Aita bakarra duen familien kopurua %65,2 gehitu da 2011tik 2022ra: 2011n 2.110 ziren, 2016an 2.629ra igo eta 2022an 3.486ra iritsi dira. Aita bakarrak dituzten familien presentzia nabarmen handitu da beraz.


Ama bakarra duten familien kasuan, hazkunde moderatua ikusten da: 2011n 10.244 ziren, 2016an 11.350, eta 2022an 11.644, %13,7ko gehikuntza, hazkunde konstante baina ez hain azkarra.

Bikote familia haurrik gabe, etxe berean bizi direnak, %17 gehitu dira: 2011n 36.786, 2016an 38.634, eta 2022an 43.046.


Aldiz, gutxienez haur bat etxean duten bikote familia, ia ez dute aldaketarik izan: 2011n 31.566, 2016an 32.131, eta 2022an 32.210, %2ko gehikuntza txikia. Honek adierazten du familia tradizionalaren proportzioa egonkortu egin dela eta azken urteetan ez duela hazkunde handirik izan.

Beraz, azken hamar urteetan Iparraldean aita bakarra duten familien hazkundera eta haurrik gabeko bikoteena da ugaritu diren ereduak. Ama bakarrak dituzten familien hazkundera moderatu izan da eta familia tradizionalaren proportzioa egonkor mantendu da.

● Ipar Euskal Herriko familia egituraren bilakaera. 2011-2022



● Ipar Euskal Herriko familia egitura (%). 2022





2

—
ETXEBIZITZA

2.1


ETXEBIZITZA KOPURUA

Etxebizitza kopuru totalari erreparatuta, Euskal Herriko lurralde guztietan etxebizitza kopurua etengabe hazi da azken bost hamarkadetan, baina hazkundearen erritmoa eta intentsitatea ez dira berdinak izan herrialde guztietan. Ipar Euskal Herrian hazkundera nabarmena eta jarraitua izan da 1968tik 2022ra: etxebizitza kopurua ia hirukoiztu egin da, 78.000tik 216.000ra igaroz. Lapurdi da hazkunderik handiena izan duen eremua, bai abiaduran bai kopuru absolutuetan. Nafarroa Behereak eta Zuberoak ere hazkunde positiboa izan dute, baina askoz apalagoa eta egituraz egonkorragoa.


Hegoaldeko lurraldeetan, datuak 1990etik aurrera daude bilduta, eta hor ere antzeko joerak antzematen dira: etxebizitzak modu etengabean gehitu dira Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian. Bizkaia da kopuru handienak bildu dituen (420.000tik 560.000ra inguru), eta Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia ere hazkunde sendoarekin ageri dira.

1990etik 2022ra etxebizitza kopuruak izan duen hazkundera alderatuz gero, agerian geratzen da hazkundearen lidergo argia Lapurdin dagoela (+%74,7). Atzetik dator Araba (+%59,9), eta jarraian Nafarroa Beherea (+%53,0). Gipuzkoak (+%44,1) eta Nafarroa Garaiak (+%43,3) ere etxebizitza-parkea nabarmen handitu dute, baina erritmo ertainagoan, eta Bizkaiak (+%32,0) hazkunde motelagoa izan du. Azkenik, Zuberoa azaltzen da igoerarik apalena (+%23).


● Ipar Euskal Herriko etxebizitza kopurua. 1968-2022



Euskal Herriko etxebizitza kopurua. 1968-2022



Euskal Herriko etxebizitza kopuruaren aldaketa (%). 1990-2022



2.2


ETXEBIZITZA MOTA

Etxebizitzaren erabilaren inguruko datuak aztertzeko, Hego Euskal Herrian 2011tik aurrera etxebizitza hutsak bigarren etxebizitzekin batera kontabilizatzen dira, horregatik hemen bi ataletan aztertuko ditugu.

Ipar Euskal Herriari dagokionean, 2011–2022 aldiko datuak aztertuta, lehen etxebizitza gisa erabiltzen direnen ehunekoa, etxebizitza guztien %74 bueltan dabil. Lehen bost urteetan (2011-2016 artean) jaitsierak izan ziren hiru herrialdeetan. 2016-2022an ordea, Lapurdin eta Behe Nafarroan errekupeatu zen. Zuberoan, ordea, bestelako bilakaera bat ikusten da: egoitza nagusiak behera egin dute hamarkadan zehar (%78,7tik %75,2ra), eta hutsik dauden etxebizitzaren proportzioak nabarmen egin du gora, 2011ko %7,8tik 2022ko %10,8ra. Bigarren etxebizitzaren pisua ere zertxobait handitu da.

Begirada Euskal Herri osora zabaldua, 2011–2022 aldiko datuek erakusten dute egoitza nagusien pisua oro har egonkorra edo apur bat gorakorra izan dela Euskal Herriko lurralde gehienetan, eta joera hori bereziki nabaritzen da Bizkaian, Gipuzkoan, Araban eta Nafarroa Garaian, non erabilera nagusiko etxebizitzek pixkanaka sendotu duten presentzia. Iparraldean, aldiz, aurretik aipatu bezala, irudi konplexuagoa ageri da: Nafarroa Behereak 2011ko mailara itzuli da eta Lapurdik galera txiki bat berreskuratu du azken urteetan, baina Zuberoak beheranzko joera jarraitua izan du eta egoitza nagusien proportzioak egin du behera.


● Ipar Euskal Herriko etxebizitza mota. 2011-2022



Euskal Herriko etxebizitza mota. 2011-2022

		2011	2016	2022
Lapurdi	Egoitza nagusiak	73,9	72,3	74,4
Lapurdi	Gainerakoak	26,1	27,7	25,6
Nafarroa Beherea	Egoitza nagusiak	78,3	76,9	78,3
Nafarroa Beherea	Gainerakoak	21,7	23,1	21,7
Zuberoa	Egoitza nagusiak	78,7	76,7	75,2
Zuberoa	Gainerakoak	21,3	23,3	24,8
Araba	Egoitza nagusiak	82,5	83,0	83,2
Araba	Gainerakoak	17,5	17,0	16,8
Bizkaia	Egoitza nagusiak	85,2	85,4	85,9
Bizkaia	Gainerakoak	14,8	14,6	14,1
Gipuzkoa	Egoitza nagusiak	82,6	85,1	85,0
Gipuzkoa	Gainerakoak	17,4	14,9	15,0
Nafarroa Garaia	Egoitza nagusiak	77,1	77,1	78,8
Nafarroa Garaia	Gainerakoak	22,9	22,9	21,2

Euskal Herriko egoitza nagusiak (%). 2011-2022




2.3

ETXEBIZITZEN OKUPAZIO EGOERA

Datu hauek bakarrik Ipar Euskal Herrirako ditugu. 2011–2022 aldian, Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren okupazioaren datuek joera argiak eta lurralde arteko desberdintasunak erakusten dituzte. Lapurdi, gehiengo nagusiak azpiokupazioa mantendu du (%65–66), baina okupazio normala pixkanaka igo da (%25,8tik %27,6ra), eta gainokupazioa zertxobait jaitsi da. Nafarroa Beherean azpiokupazioa oso altua da (%86 inguruan), okupazio normala eta gainokupazioa oso baxuak diren bitartean; joera hauek egonkor mantendu dira. Zuberoan egoera antzekoa, baina are nabarmenagoa da: azpiokupazioa %90 ingurukoa da, eta gainokupazioa oso baxua (%1–2).

● Ipar Euskal Herriko etxebizitza okupazio egoera. 2011-2022




2.4

ETXEBIZITZA NAGUSIEN ANTZINATASUNA

Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren parkea, azken urteetako dinamikari erreparatuz gero, berritze prozesua erakusten du. 2016an, etxebizitzaren zati esanguratsua 1919 baino lehen edo 1945 aurretik eraikia zen (guztira 29.000 inguru), baina kopuru horiek pixkanaka murritzitu dira 2022rako, 27.500era jaitsiz. Bigarren Mundu Gerraren ondoko lehen hamarkadetan (1946–1970) eraikitako etxebizitzaren kopurua egonkor mantendu da, ia aldaketarik gabe.

Aldiz, 1970etik aurrerako etxebizitzaren pisua handitzen ari da, eta bereziki nabarmena da 2006tik aurrera eraikitakoen gorakada: 2016ko 20.623 etxebizitzetatik 2022an ia 37.000ra iritsi dira. 1971–1990 bitartean eraikitako etxebizitzek ere goranzko joera erakutsi dute, eta 1991–2005 bitartekoek ere hazkunde moderatua izan dute.


● Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren eraikitze urtea. 2016-2022



Horrela, 2016–2022 aldian, Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetan etxebizitza parkea nabarmen gaztetu da. Iparralde osoan etxebizitzaren batez besteko adina 56 urte izatetik 50 urtera jaitsi da, eta joera hori bereziki indartsua izan da Lapurdin (53,5 urtetik 47,8ra). Nafarroa Beherean eta Zuberoan ere beherakada handia gertatu da, nahiz eta bi herrialde horiek oraindik ere etxebizitza parke zaharrena izaten jarraitzen duten: Nafarroa Behereak 63,9 urteko batez bestekoa du, eta Zuberoak 72,8koa.

Aldiz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako etxebizitza parkearen batez besteko adina handitu egin da, hau da, kontrako joera nagusitu da. Arabak 46,1 urtetik 53,5era egin du jauzi, eta Bizkaia eta Gipuzkoak ere zahartze esanguratsua izan dute. Hegoaldean Nafarroa Garaia da salbuespena, 53,3 urtetik 48 urtera jaitsiz. Guztira, Euskal Herri osoan batez besteko adinak beherakada arina izan du, eta 2022an 50,3 urtekoa da.

● Euskal Herriko etxebizitzaren batezbesteko adina. 2016-2022



2.5


ETXEBIZITZA EDUKITZE ERREGIMENA

Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren edukitze-erregimenak aldaketa esanguratsuak izan ditu 2011–2022 bitartean. Kopuruz, jabetzako etxebizitzak nabarmen hazi dira (80.000tik 93.000ra), baina pisu erlatiboa zertxobait jaitsi da (%59,2tik %57,8ra), etxebizitza kopuru osoaren hazkundera dela eta. Alokairu pribatuak ere gora egin du kopuruz, baina proportzioan behera (%25,7tik %24,0ra). Alokairu modalitateetan aldaketarik nabarmenena, bere txikitasunean, altzaridun etxebizitzena da: 2016an behera egin ondoren, 2022an ia bikoiztu egin dira, %4,4ra iritsiz. Etxebizitza sozialen alokairuak, berriz, hazkunde jarraitua izan du bai kopuruz, bai proportzioz (%9tik %11,2ra). Doan bizitzaren diren etxebizitzaren proportzioa apur bat jaitsi da, egonkor mantenduz.

● Ipar Euskal Herriko etxebizitza edukitze erregimena. 2011-2022


	2011	2016	2022
Jabea	79.904	84.702	93.189
Hustutako pribatuko etxebizitzaren alokairua	34.705	37.001	38.659
Altzariak dituzten etxebizitzaren alokairua	4.044	3.972	7.120
Hustutako etxebizitza sozialaren alokairua	12.097	15.148	18.069
Doan bizitzea	4.186	4.084	4.218
Guztira	134.937	144.907	161.255

● Ipar Euskal Herriko etxebizitza edukitze erregimena (%). 2011-2022



2022ko mapa orokorrak argi erakusten du Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko kontraste handia. Lapurdin jabetza-tasa askoz txikiagoa da (%55,6), eta alokairuak pisu oso handia du (%41,9). Nafarroa Beherea eta Zuberoa dira jabetza-mailarik altuenak dituztenak (%71–76), eta alokairuaren pisua txikia da (%21–25). Hegoaldean, berriz, jabetza-tasak oso altuak dira —Araban %83,4ra iristen da— eta alokairuaren proportzioa baxua (%11–13). Euskal Herri osoa kontuan hartuta, jabeak %78,8 dira eta alokairua %15,3.

● Euskal Herriko etxebizitza edukitze erregimena (%). 2022




2.6

ETXEBIZITZEN OKUPAZIO DENBORA


Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren okupazio-denborak erakusten du mugikortasuna gero eta handiagoa dela. 2011–2022 tartean etengabe hazi da 2–4 urteko eta 5–9 urteko okupazio-tarteetan dauden etxebizitzaren kopurua; bereziki 2–4 urte bitartekoak handitu dira, 26.000tik 35.000tik gora igaroz. Horrek adierazten du biztanleria gero eta maizago aldatzen dela etxebizitza, lan-dinamiken, ikasketa, prezioen edo bizitegi-aukeren ondorioz. Denbora luzeagoan okupatutako etxebizitzetan ere hazkundea dago, baina askoz apalagoa, eta proportzionalki pisua galdu dute epe ertain eta laburren aldean.

● Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren okupazio denbora (Denbora bizitzen). 2011-2022



Batez besteko okupazio-denboraren bilakaerak joera hori berresten du: Iparraldean 2011ko 15,1 urteko batez bestekoa 14,5 urtera jaitsi da 2022an. Lapurdin jaitsiera are nabarmenagoa da, 14,3 urtetik 13,9ra; eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan ere beheranzko mugimendua ikus daiteke, nahiz eta bi herrialde horiek oraindik ere egonkortasun handiagoko eredua mantentzen duten (18–21 urteko okupazio-denborak). Beraz, Ipar Euskal Herriko landa eremuetan oraindik egonkortasuna handiagoa bada ere, joera orokorrak etxebizitza-parkearen dinamizazio handiagoa islatzen du.

● Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren okupazio denbora, batez-besteko denbora bizitzen. 2011-2022




2.7

ETXEBIZITZA ALDAKETAK


2022an, Ipar Euskal Herria osoan, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, biztanleen %77–82k ez zuten etxebizitza aldaketarik izan urtean, eta gainerakoak udalerri barruko mugimenduak (%4–7) eta udalerri batetik bestera egindakoak (%13–16) ziren. Mugimendua geroz eta handiagoa da kostaldera hurbildu ahala.

Bestalde, Euskal Herri osoa ikusita, mugikortasun orokorra txikiagoa da. Guztira, %90,6k ez zuen etxebizitza aldaketarik izan, %4,1k herri berean aldatu zuten, eta %5,3k udalerri batetik bestera. Hego Euskal Herrian, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian, mugimenduen portzentajeak baxuagoak dira.

● Ipar Euskal Herriko etxebizitza aldaketak. 2022




● Euskal Herriko etxebizitza aldaketak. 2022



Ipar Euskal Herrian mugimendu nabarmenenak 25 eta 54 urte arteko herritarrena da, eta bereziki beste herri batera egindakoak. 2011tik 2016 mugimendu gehiago egon ziren, 2016tik 2022ra baino, baina adinaren arabera badago azpimarragarria den ñabardura bat: 55 urtetik gorakoen mugimendua nabarmen hazi da bosturte batetik bestera, bereziki udalerritik kanpora (3.528, 4.475 eta 5.078 hurrenez hurren), besteak azken bosturtean apaldu diren bitartean.

● Ipar Euskal Herriko etxebizitza aldaketak adinaren arabera. 2011-2022



3


— LAN MERKATUA ETA EKONOMIA

3.1

ENPRESA DEMOGRAFIA³

2014 eta 2023 artean, Ipar Euskal Herriko enpresa kopuruak etengabeko gorakada izan du, Ipar Euskal Herriaren baitan 24.836 enpresatik 38.551ra igaroz; hau da, hamarkadan zehar ia %55eko hazkundea. Lurraldeka ere joera bera ikusten da: Lapurdik pisu nagusia du, 21.429 enpresatik 34.569ra igaroz eta hazkunde nabarmena metatuz; Nafarroa Behereak ere bilakaera positiboa izan du, 2.398tik 3.089 enpresara iritsi arte 2022an, nahiz eta 2023an apur bat jaitsi (2.950); Zuberoak, berriz, egonkortasun handiagoa erakusten du, 1.032 enpresatik 1.158ra iritsi ondoren 2023an 1.055era jaitsiz.

● Enpresa demografia Ipar Euskal Herrian (2014-2023)



2023an, Euskal Herriak guztira 282.653 enpresa zituen, eta horien banaketak argi erakusten du lurraldeen arteko tamaina eta pisu ekonomikoaren desoreka. Bizkaia da enpresa kopururik handiena duen lurraldea, 86.338 enpresarekin. Gipuzkoak ere presentzia sendoa du (56.241), eta ondoren Nafarroa Garaia dator 38.941 enpresarekin. Arabak 24.008 enpresa erregistratzen ditu. Lapurdi, 34.569 enpresarekin, Nafarroa Garaia eta Arabaren artean dago.


³ Enpresa kontzeptuan aldea dago:

- INSEE → estatistika-unitatea (unitate legalen konbinazioa egiten du, konbinazio estatistikoa ez juridikoa). Kopuru txikiagoa izan ohi da.
- EUSTAT/NASTAT → unitate juridikoa, kopuru handiagoa.

Datuen xehetasunetan sartuta, EUSTATEk Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza sektoreko enpresak kontabilizatzen ditu, besteek ez.


Ondorioz, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan enpresa gehiago kontabilizatzen dira, Nafarroa Garaian baino eta hemen Ipar Euskal Herrian baino.

Euskal Herriko enpresa demografia. 2023



1.000 biztanleko enpresa tasari erreparatuta, Euskal Herriko batez bestekoa 88,4 enpresakoa da, baina lurraldeen artean alde esanguratsuak ageri dira. Tasa altuenak Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian erregistratzen dira: Lapurdik balio handiena du (123,9), enpresa dentsitate handiko eremua dela erakutsiz. Hegoaldeko hiru lurralde historikoen artean, Gipuzkoak du tasarik altuena (77,8), eta ondoren Bizkaia (75,2), biak ere batez besteko orokorretik behera; Araba da tasarik txikiena duen eremua (71,9). Nafarroa Garaiak du tasarik txikiena (58,6). Iparraldeko bi lurralde txikiek, berriz, emaitza mistoak erakusten dituzte: Nafarroa Behereak batez bestekotik gora kokatzen den 90,2ko tasa du, eta Zuberoak (72,6), Arabaren parekoa.

Euskal Herriko enpresa tasa 1.000 biztanleko. 2023




ENPRESAK, SEKTOREKA

2014 eta 2023 artean, Ipar Euskal Herriko enpresa-kopuruak goranzko bilakaera nabarmena izan du sektore guztietan ia salbuespen bakarrarekin, eta 24.836 enpresatik 38.551ra iritsi da hamarkadaren amaieran. Hazkunde sendoena jarduera espezializatueta, zientifikoetan eta teknikoetan izan da, 3.408tik 7.323 enpresara igo direlako, eta horren atzetik dator administrazio publikoa, irakaskuntza, osasuna eta gizarte-ekintza, 4.210etik 6.808ra haziz.

Finantza- eta aseguru-jarduerak ere bikoiztu egin dira, 757tik 1.944 enpresara, eta informazio-komunikazio sektorea antzeko dinamikan dago, 534tik 1.119ra igota. Bestelako zerbitzu-jarduerak ere hazkunde bizia izan dute (2.170tik 3.944ra), eta eraikuntzak goranzko joera moderatua mantendu du (3.292tik 4.383ra).

Merkataritza, garraioa, ostalaritza eta jatetxeak osatzen duten multzo handiak egonkortasun handiagoa erakusten du, aldaketa txikiagoekin (6.348tik 7.887ra). Industria manufakturoa eta erauzleak ere zertxobait handitu dira (1.598tik 2.287ra). Sektore bakar batek izan du atzerakada 2023an: higiezin jarduerak, 2022an maximoa lortu ondoren (3.433), 2.856 enpresara jaitsi direlako. Oro har, datu hauek ekonomia zerbitzu intentsiboago baterantz doala eta jarduera profesional eta teknikoen pisua indartzen ari dela erakusten dute.

Ipar Euskal Herriko enpresak, sektoreka. 2014-2023




Ipar Euskal Herriko enpresen banaketa sektoreka gainontzeko lurraldeekin alderatzeko orduan bi sektore hautatu ditugu:

- Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
- Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostalariak eta jatetxea


Bi sektore hauek hautatzeko arrazoiak, Ipar Euskal Herria beste lurraldeekin alderatzeko, beren pisu ekonomiko eta dinamika nabarmenagatik izan da. Lehena, jarduera espezializatu, zientifiko eta teknikoena, hazkunderik handiena izan duen sektorea da azken urteetan (3.408tik 7.323ra enpresa 2014tik 2023ra), eta ekonomia modernoko lan kualifikatuaren eta berrikuntzaren adierazle sendoa da, beraz, lurraldeen arteko konparazioan gaitasun teknologiko eta profesionala aztertzeko aproposa da. Bigarrena, merkataritza, garraioa, ostalaritza eta jatetxeena, Ipar Euskal Herriko ekonomian pisu handiena duen sektoreetako bat da (7.887 enpresa 2023an), mugaz gaindiko merkataritza eta turismoaren eragina jasotzen du eta bere dentsitatea beste lurraldeekin alderatzeko baliagarria da.

2018 eta 2023 artean, jarduera espezializatu, zientifiko eta teknikoaren eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jardueren pisua Ipar Euskal Herrian nabarmen handitu da, eta lurraldeen arteko desberdintasunak agerian uzten ditu. Iparralde osoan sektore horren ordezkartza %15,6tik %19,0ra igo da sei urteetan, eta Lapurdik nabarmen aurreratu du, %16,5etik %19,8ra, Ipar Euskal Herriko hazkunderik altuena erakutsiz. Nafarroa Beherea eta Zuberoa ere igoera handia izan dute, hurrenez hurren %9,0tik %12,0ra eta %10,2tik %13,1era. Hegoaldeko lurraldeetan, berriz, Arabak pisu konstantea mantendu du (%15,2 eta %15,4), eta Bizkaia (%16,5 eta %16,7) eta Gipuzkoa (%16,2 eta %16,3) ere egonkorak izan dira, aldaketa txikiekin. Nafarroa Garaian sektorearen proportzioa %9 inguruan egon da. Oro har, Euskal Herriko batez bestekoa %14,4tik %15,2ra igo da.

Ipar Euskal Herriko jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak (%). 2018-2023




Euskal Herriko jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak (%). 2018-2023




2018 eta 2023 artean, handizkako eta txikizkako merkataritza, garraio, ostatua eta jatetxeen sektorearen pisua Ipar Euskal Herrian pixkanaka jaitsi da, eta lurraldeen arteko desberdintasun nabarmenak erakusten ditu. Iparralde osoan sektore horren ordezkartza %23,5etik %20,5era jaitsi da sei urteetan, eta Lapurdik antzeko joera izan du (%23,4etik %20,1era). Nafarroa Beherean, aldiz, sektorearen pisua egonkor mantendu da eta 2023an igoera txiki batekin %22,9etara iritsi da, eta Zuberoak ere igoera bat izan du azken urtean, %24,6. Hegoaldeko lurraldeetan, Arabak eta Bizkaia pisu altua mantendu dute, hurrenez hurren %33,8 eta %36,4, Gipuzkoa %34,5. Nafarroa Garaian, berriz, sektorearen ordezkartza txikia da, %19,3, eta batez besteko orokorra Euskal Herrian %30,5etik %27,9ra jaitsi da. Beraz, datuek erakusten dute Ipar Euskal Herrian sektore tradizional honen pisua moteldu egin dela, batez ere Lapurdin.

Ipar Euskal Herriko handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostatua eta jatetxea (%). 2018-2023




Euskal Herriko handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostatua eta jatetxea (%). 2018-2023



ESTABLEZIMENDU BANAKETA, LANGILE GERUZEN ARABERA


2023an, Ipar Euskal Herriko establezimenduetan soldatapeko langileen banaketak tamaina txikiko enpresen nagusitasuna erakusten du. Iparraldean, establezimenduen %65,2k 1etik 5 langile arteko kopurua dute, Euskal Herriko batez bestekoa baino handiagoa (%58,3), eta %18,0k 6tik 9 langilera dituzte (%16,8 Euskal Herrian). Tamaina ertain eta handiko establezimenduak askoz ere gutxiago dira: 10etik 19 langile dutenak %9,1 dira (%12,4 Euskal Herrian), 20tik 49 artekoak %5,0 (%8,2 Euskal Herrian), eta 50 langile edo gehiago dituztenak %2 baino gutxiago. Gehieneko pisua tamaina txikiko enpresek dutenez, datuek adierazten dute Ipar Euskal Herriko ekonomiaren egitura mikroenpresek eta tailer txikiek gidatua dela, eta Hegoaldeko lurraldeekin alderatuta ere, establezimendu txikien proportzioa altuagoa dela.

Euskal Herriko establezimendu banaketa langile geruzen arabera (soldatapekoak %). 2023




Geruza bakoitzean dagoen soldatapekoen proportzioari dagokionean, argazkia aldatzen da. 2023an, Ipar Euskal Herriko establezimenduetan langile kopuruaren banaketak lurraldeen arteko desberdintasun nabarmenak erakusten ditu. Iparralde osoan, establezimendu gehienak tamaina ertainekoak dira, batez ere 20tik 49 langiletakoak (%17,3) eta 500 edo gehiagoko langile dituztenak (%10,9), tamaina handiko enpresen presentzia adieraziz. Lapurdik Iparraldearen batez bestekoaren antzeko banaketa du, %16,9 20–49 langileko establezimenduen artean eta %12,2 500 edo gehiagoko enpresen artean. Nafarroa Beherean, aldiz, establezimendu txikien presentzia handiagoa da: 1etik 5 langile artekoak %20,4, eta 6–9 langilekoak %17,4; tamaina handiko enpresak ez daude. Zuberoan ere establezimendu txikiek nagusitasuna dute (%22,3 1–5 langile, %18,1 6–9 langile), eta tamaina handiko enpresarik ez dago.

● Ipar Euskal Herriko establezimenduetan langile kopuruaren banaketa (%), langile geruzen arabera. 2023



Gainontzeko Euskal Herriarekin alderatuta, Iparraldeak eta Euskal Herri osoak enpresa-tamainaren egitura desberdinak dituzte. Iparraldean, langileen pisurik handiena 20–49 langileko establezimenduetan kontzentratzen da (%17,3), eta ondoren 10–19 langilekoetan (%13,5) eta 6–9 langilekoetan (%13,2). Mikro-establezimenduak ere nabarmenak dira (%14,3 1–5 langilerekin), Euskal Herri osoko proportzioa baino handiagoak dira kategoria txikietan. Euskal Herri osoarekin alderatuta, ikus daiteke Ipar Euskal Herrian enpresa ertain eta handien pisua handiagoa dela: %19,2 (20–49 langile), %15,3 (100–249 langile) eta %12,7 (500 langile edo gehiago).

Euskal Herriko establezimenduetan langile kopuruaren banaketa (%), langile geruzen arabera. 2023



Euskal Herriko establezimenduetan langile kopuruak estratuen arabera. 2023⁴

	Iparralde	Lapurdi	Nafarroa Beherea	Zuberoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa Garaia	Euskal Herria
1etik 5era	16.799	14.305	1.753	758	14.424	45.700	31.756	32.796	141.492
6tik 9ra	15.543	13.417	1.502	614	11.168	33.278	24.270	14.565	98.813
10etik 19ra	15.881	14.202	1.197	482	15.887	47.645	35.166	23.430	138.009
20tik 49ra	20.286	17.829	1.746	691	28.385	83.335	57.785	37.450	227.221
50etik 99ra	15.630	14.325	774	531	19.200	56.700	37.650	22.125	151.305
100etik 249ra	11.138	10.312	508	318	23.450	68.600	50.225	28.525	181.938
250etik 499ra	9.430	8.298	1.132	0	15.000	33.750	24.000	13.568	95.748
500 edo gehiago	12.846	12.846	0	0	18.000	60.000	27.600	32.400	150.846
Guztira	117.553	105.534	8.612	3.394	145.514	429.008	288.452	204.859	1.185.372


⁴ Ikusi metodologia

3.2


LAN MERKATUA

Iparraldeko lan merkatuak hazkunde moderatua erakusten du 2011 eta 2022 artean. Aktiboen kopurua 182.457 pertsonatik (2011) 194.467ra igo da 2022an. Hiru herrialdeen artean, Lapurdik du gorakadarik handiena: 154.807tik 167.595era (+%8,3). Nafarroa Behereak oso aldaketa txikia izan du (18.909tik 19.093ra, +%1), eta Zuberoak aldiz beheranzko joera erakusten du, 9.061etik 8.063ra (-%11).

Iparraldeko biztanleria aktiboa. 2011-2022




Euskal Herriko biztanleria aktiboa. 2011-2022




Okupazioari dagokionez, Iparraldeak 118.412 langiletatik (2011) 134.888ra egin du gora 2022an, hau da, %13,9 igo da, aktiboen %6,6 baino gehiago. Lapurdin okupatuen kopurua 99.298tik 115.362ra igo da (+%16,2); Nafarroa Beherean, 13.128tik 13.971ra (+%6,4); eta Zuberoan 6.202tik 5.759ra jaitsi da (-%7,1).

Euskal Herriko gainerako lurraldeekin alderatuta, Iparraldeko aktiboen eta okupatuen kopuruak txikiagoak dira, baina bilakaerak antzeko dinamika erakusten du: Araban 152.400 aktibotik 159.600era igo da (2011–2022), Gipuzkoan 336.500etik 347.000ra, eta Nafarroa Garaian 319.200etik 323.825era; Bizkaian, berriz, egonkor mantendu da 2011 eta 2022 arteko tartean (547.900 bi urteetan). Okupatuen datuek ere antzeko goranzko joera erakusten dute lurralde gehienetan 2016tik 2022ra, Bizkaian 467.400tik 496.900era eta Gipuzkoan 301.500etik 322.900era, esaterako.

Iparraldeko biztanleria okupatua. 2011-2022




Euskal Herriko biztanleria okupatua. 2011-2022




Langabezia tasak gorabeherak izan ditu ziklo osoan. Iparralde osoan 7,8ko tasatik (2011) 8,9ra igaro zen 2016an, eta 2022an berriz 7,4ra jaitsi da. Hiru herrialdeen artean, Lapurdik maila altuagoak izan ditu (8,4, 9,5 eta 7,8 2022an), eta Nafarroa Beherea eta Zuberoak tasarik txikiak, 2022an hurrenez hurren 5,2 eta 5,0. Hala ere, 2011rekin alderatuta, Lapurdik tasa txikiagoa du orduan baino, ez horrela Nafarroa Beherea eta Zuberoak.

Euskal Herri mailan, 2016a izan da mailarik altuena lurralde gehienetan: Bizkaian 15,3, Araban 14,1 eta Nafarroa Garaian 12,6. 2022an, tasak jaitsi egin dira eremu guztietan: Gipuzkoan 6,9ra, Bizkaian 9,3ra eta Araban 9,5era. Herrialde guzti hauetan serieko tasarik onena dute 2022an, Araba izan ezik. Iparraldeko langabezia tasa (7,4) tarteko posizioan kokatzen da.

● Ipar Euskal Herriko langabezia tasa. 2011-2022




● Euskal Herriko langabezia tasa. 2011-2022



OKUPAZIO TASA GENEROAREN ARABERA


Iparraldeko emakumeen okupazio tasak goranzko bilakaera izan du 2011 eta 2022 artean. 2011n %61,8koa zen eta 2022an %67,5era iritsi da, 5,7 puntuko aldea metatuz. Lurraldeko, Lapurdik igoera handiena izan du, %61,1tik %67,0ra (6 puntu); Nafarroa Behereak %66,0tik %71,3ra egin du gora (5,2 puntu); eta Zuberoak %65,8tik %69,8ra (4 puntu).

Iparraldeko emakumeen okupazio tasa. 2011-2022



Gizonen okupazio tasak ere gorantz egin du Iparralde osoan, baina igoera txikiagoarekin: 2011ko %68,1etik 2022ko %71,3ra, 3,2 puntuko aldea. Lapurdin tasak %67,3tik %70,8ra igo dira (3,4 puntu), eta Nafarroa Beherean zein Zuberoan igoerak neurritsuagoak izan dira: hurrenez hurren 2,5 eta 2,2.


Iparraldeko gizonen okupazio tasa. 2011-2022




Euskal Herriko gainerako lurraldeekin alderatuta, Iparraldeko okupazio tasak nabarmen baxuagoak dira bai emakumeengan bai gizonengan. Emakumeen kasuan, 2022ko tasak %89,9 eta %92,7 artean daude Bizkaian eta Gipuzkoan, %90,5 Araban eta %89,6 Nafarroa Garaian; igoerak txikiagoak dira, eta Araban 2011–2022 arteko aldeak -1,0 puntuko beherakada adierazten du. Gizonen artean, antzeko maila altuak ageri dira 2022an: %90,5 Araban, %91,5 Bizkaian, %93,4 Gipuzkoan eta %90,6 Nafarroa Garaian. Igoerak ere txikiagoak izan dira, Bizkaian 5,4 puntuko aldaketa nabarmenduz.

Iparraldeko tasak, ordea, emakumeetan %67,5 eta gizonetan %71,3 izanik, behe mailan kokatzen dira gainerako lurraldeetako balioen aldean.

Euskal Herriko emakumeen okupazio tasa. 2011-2022



Euskal Herriko gizonen okupazio tasa. 2011-2022



METODOLOGIA ETA DATUEN TRATAMENDUA

Euskal Herriko lurralde osoari buruzko estatistikak eraikitzeke, hainbat erakunderen iturri ofizialak erabili dira, bakoitzak bere administrazio-mugak, definizio estatistikoak eta bilketa-prozedurak dituelarik. Helburua izan da lurraldearen ikuspegi bateratua osatzea, Ipar zein Hego Euskal Herria modu koherentean uztartuz.

Ipar Euskal Herriko informazioa osatzeko, Frantziako estatistika-erakundeak udalerrri mailan argitaratzen dituen datu iturri nagusiak bildu dira: zentsua, enpresa-erregistroak, enpleguari eta jardueri buruzko datu multzoak eta beste hainbat base (zentsua, Melodi, SIDE, Siret, Flores...). Datu horiek, jatorriz Frantzia osorako perimetroan daudenak, lurralde geokodeen bidez iragazi dira, eta Ipar Euskal Herriko udalerriei dagozkien erregistroak hautatu dira. Ondoren datuak agregatu dira lehenik herrialde historikoen arabera, eta azkenik Ipar Euskal Herri osoaren mailan.

Hegoaldeko lurraldeetan, berriz, eskualde bakoitzari dagokion estatistika-erakunde ofiziala erabili da: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako Eusko Jaurlaritza/EUSTAT, eta Nafarroa Garairako NASTAT. Erakunde horiek herrialde bakoitzaren administrazio-errealitateari egokitutako informazioa eskaintzen dutenez, datuen bateratze-lana egin da, definizio eta sailkapen desberdinek sor ditzaketen desoreka terminologikoak saihesteko.

Datuen bilketan eta prestaketan sailkapen egokiak erabili dira lurraldeak, jarduera ekonomikoak, establezimenduak, tamaina-tarteak eta bestelako geruzak modu uniformearen tratatu ahal izateko. Iturri bakoitzak bere kategoria-kodeak erabiltzen dituenaz, kode horietako askok behar izan dute egokitzapen eta parekatze lana, etiketak bateratzeko eta interpretazio bakarrean txertatzeko. Horrek ahalbidetu du lurralde desberdinetatik datozen erregistroak serie berean kokatzea eta alderagarriak izatea.

Behin oinarritzko datu multzoak bateratuta, denbora-serieak antolatu dira, urte bakoitzeko balioak modu sistematikoan aurkeztuz.

Ipar eta Hego Euskal Herriko informazioa uztartzeak hainbat moldaketa eskatzen ditu, iturri desberdinek estaldura eta definizio heterogeneoak erabiltzen baitituzte. Horregatik, bateratzean kontu berezia jarri da falta diren balioak identifikatzen, neurrien koherentzia mantentzen eta beharrezko zenbait kasutan estimazio prudentzialak aplikatzen. Estimazio horiek erabili dira, esaterako, kategoria batzuk besteetan berrantolatu behar izan direnean edo datu-iturri batek ez duenean besteena bezainbeste xehetasun eskaintzen.

Adibidez, langile kopuruen geruzak originalki establezimenduen kopurua ematen duten datu multzoetan enpleguaren gutxi gorabeherako balioak lortu behar izan dira. Horretarako, tamaina-tarte bakoitzerako lanpostu kopuru errealistak adierazten dituzten multiplikatzailerak erabili dira (adibidez, “1etik 2ra” tarteak batez beste 1,5 langile adierazten du, eta “3tik 5era” tarteak 4 langile inguru). Tarte horietako urteko balio guztiak multiplikatzailer horien bidez bihurtu dira langile zenbatespen koherente batera. Ondorioz, taula nagusian establezimendu-kopuruak mantentzen dira, eta haien ondoan, geruza beraren arabera kalkulaturako langile-estimazioak eratortzen dira.

Jarraian datuak bateratzeko erabilitako berkodeak erakusten ditugu.

Formazioa

Lehenik, Iparraldeko sisteman, DBHren pareko titulua da BEPC edo DNB (Diplôme National du Brevet). Hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaiera da Hegoaldeko sisteman, normalean 14-15 urte inguruan lortzen dena.

Bigarrenik, ikasleak lanbide trebetasunak jasotzen baditu, CAP edo BEP bezalako diploma lor dezake. Hegoaldean honi Lanbide Heziketako diploma esaten zaio, eta normalean lehen mailako LH-ren baliokidea da.

Hirugarrenik, Batxilergoa edo Brebet profesionala Iparraldean, Hegoaldeko Batxilergoarekin parekatzen da. Hau DBH amaitu ondoren etortzen da, eta unibertsitatera sartzeko prestatzen du ikaslea.

Azkenik, goi-mailako ikasketen diploma Iparraldean, Hegoaldeko Unibertsitateko lizentzia, gradua edo goi-mailako LH diploma baliokidea da. Hau hiru urte edo gehiagoko ikasketak barne hartzen ditu, eta aditu mailako prestakuntza eskaintzen du. Helburua espezializazioa eta lan-merkatuan lehiakortasuna handitzea da.

Iparraldea eta Hegoaldea parekatzeko:

- a) Bigarren hezkuntzako lehenengo etapa eta hortik beherakoak, Titulu gabea edo BEPC, ikastetxeko brebeta, DNB-rekin berdindu da.
- b) Bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta bigarren hezkuntzaren osteko hezkuntza ez goi-mailakoa, CAP, BEP edo baliokide den mailako diplomarekin berdindu da.
- c) Batxilergoa, Brebet profesionala edo baliokidea eta Goi-mailako ikasketen diploma Goi-mailako hezkuntza gisa sailkatu dira.

INSEE	EUSTAT	NASTAT	Gaindegia
Titulu edo oinarritzko ikasketa ziurtagiririk gabea	Lehen hezkuntza baino gutxiago	Analfabetoak eta lehen mailako ikasketa osatugabeak	Bigarren hezkuntzako lehenengo etapa eta hortik beherakoak
BEPC, oinarritzko brebeta, ikastetxeko brebeta edo DNB	Lehen hezkuntza	Lehen Hezkuntza	
CAP, BEP edo baliokide den mailako diploma	Behe-mailako bigarren hezkuntza	Bigarren hezkuntzako lehen etapa eta antzekoa	
Batxilergoa, brebet profesionala edo baliokidea	Goi-mailako bigarren hezkuntza	Bigarren hezkuntzako bigarren etapa, orientazio orokorrarekin	Bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta bigarren hezkuntzaren osteko hezkuntza ez goi-mailakoa
Goi-mailako ikasketa laburrak: BTS, DUT, Deug, Deust, osasun edo gizarte arloko diploma (batxilergo +2 mailakoa)	Bigarren maila osteko hezkuntza, hirugarren mailakoan sartzen ez dena	Lanbide-orientazioa duen bigarren hezkuntzako bigarren etapa (goi-mailako bigarren hezkuntzaren ostekoa barne)	Goi-mailako hezkuntza
Unibertsitate mailako diploma edo baliokidea: lizentzia, lizentzia profesionala, maisutza edo batxilergo +3/+4 mailako diploma	Ziklo laburreko hirugarren hezkuntza	Goi-mailako hezkuntza	

Batxilergo +5 mailako edo goragoko diploma	Hirugarren hezkuntzako gradua edo maila baliokidea		
	Maisutza maila: espezializazioa edo maila baliokidea		
	Doktorego maila edo baliokidea		

Familia

Ipar Euskal Herriko datuak INSEEk Melodi datu basetik, udalerriz udalerriz datuak jasota, kalkulatu dira. Familia kopuru eta proportzioak alderatu dira Eurostatek Pirinio Atlantikoko ematen duen datuarekin, eta proportzio joera antzekoak daude batean zein bestean. Aldiz, Eurostatek Pirinio Atlantikoko ematen dituen datuak Hegoaldekoekin alderatzen direnean, joera ezberdin nabarmenak ikusten dira. Beraz, Hegoaldean eta Iparraldean, familia mota ezberdinak kontabilizatzeko metodologia ezberdinak daudela ondorioztatu dugu. Aldea, familia kategorian dago. Ipar Euskal Herrian bikotea ofizialki erregistratua ez bada ere, familia gisa kontabilizatzen da. Hegoaldean ez. Hegoaldean familia gisa zenbatzeko ofizialki erregistratuta egon behar da, nahiz eta etxe berean bizi.

Etxebizitza

INSEE	EUSTAT	NASTAT	Gaindegia
Egoitza nagusiak	Egoitza nagusiak	Egoitza nagusiak	Egoitza nagusiak
Bigarren etxebizitzak eta noizbehinkako etxebizitzak	Gainerakoak	Gainerakoak	Gainerakoak
Hutsik dauden etxebizitzak			

Establezimendu geruzak

EUSTAT	NASTAT	INSEE	GAINDEGIA
0tik 2ra (bi heren)	Ninguna		0
0tik 2ra (heren bat)	De 1 a 2	1etik 4ra langile	1etik 5era
3tik 5era	De 3 a 5		
6tik 9ra	De 6 a 9	5etik 9ra langile	6tik 9ra
10etik 14ra	De 10 a 19	10etik 19ra langile	10etik 19ra
15etik 19ra			
20tik 49ra	De 20 a 49	20tik 49ra langile	20tik 49ra
50etik 99ra	De 50 a 99	50etik 99ra langile	50etik 99ra
100etik 249ra	De 100 a 249	100etik 199ra langile	100etik 249ra
250etik 499ra	250 o más	200etik 499ra langile	250etik 499ra
>= 500		500 langile edo gehiago	500 edo gehiago

Enpresa sektoreak

Inkesta etxe bakoitzak erabiltzen duen sailkapena kontuan hartuta, ñabardurak-ñabardura, sortu da Gaindegiakoa . INSEE eta EUSTATENak horrela parekatu dira Gaindegiakoarekin:

SIDE TALDEA (INSEE)	EUSTAT JARDUERAK (A-S KODEAK)	GAINDEGIA
Finantza- eta aseguru-jarduerak	K. Finantza jarduerak eta aseguruetakoak	Finantza- eta aseguru-jarduerak
Administrazio publikoa, irakaskuntza, giza osasuna eta gizarte-ekintza	O. Administrazio publikoa eta defentsa	Administrazio publikoa, irakaskuntza, giza osasuna eta gizarte-ekintza
Administrazio publikoa, irakaskuntza, giza osasuna eta gizarte-ekintza	P. Hezkuntza	Administrazio publikoa, irakaskuntza, giza osasuna eta gizarte-ekintza
Administrazio publikoa, irakaskuntza, giza osasuna eta gizarte-ekintza	Q. Osasun eta gizarte zerbitzuak	Administrazio publikoa, irakaskuntza, giza osasuna eta gizarte-ekintza
Beste zerbitzu-jarduera batzuk	R. Arte, aisialdi eta entretenimendua	Beste zerbitzu-jarduera batzuk
Beste zerbitzu-jarduera batzuk	S. Bestelako zerbitzuak	Beste zerbitzu-jarduera batzuk
Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio- eta laguntza-zerbitzuak	M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio- eta laguntza-zerbitzuak
Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio- eta laguntza-zerbitzuak	N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio- eta laguntza-zerbitzuak
Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostalua eta jatetxea	G. Handizkako eta txikizkako merkataritza	Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostalua eta jatetxea
Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostalua eta jatetxea	H. Garraioa eta biltegiratzea	Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostalua eta jatetxea
Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostalua eta jatetxea	I. Ostalaritza	Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostalua eta jatetxea
Eraikuntza	F. Eraikuntza	Eraikuntza
Higiezen jarduerak	L. Onibar-jarduerak	Higiezen jarduerak
Industria manufakturoa, industria erauzleak eta besteak	B. Ateratze-industriak	Industria manufakturoa, industria erauzleak eta besteak
Industria manufakturoa, industria erauzleak eta besteak	C. Manufaktura-industria	Industria manufakturoa, industria erauzleak eta besteak
Industria manufakturoa, industria erauzleak eta besteak	D. Energia, gasa, lurrina	Industria manufakturoa, industria erauzleak eta besteak
Industria manufakturoa, industria erauzleak eta besteak	E. Ur-horniketa, hondakinak eta saneamendua	Industria manufakturoa, industria erauzleak eta besteak
Informazioa eta komunikazioa	J. Informazioa eta komunikazioak	Informazioa eta komunikazioa
(SIDEk ez du zenbatzen)	A. Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza
Zehaztugabea	Zehaztugabea	Zehaztugabea

NASTATenak horrela parekatu dira Gaindegiakoarekin:



NASTAT CNAE	GAINDEGIA
41 Construcción de edificios	Eraikuntza
42 Ingeniería civil	Eraikuntza
43 Actividades de construcción especializada	Eraikuntza
08 Otras industrias extractivas	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
10 Industria de la alimentación	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
11 Fabricación de bebidas	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
13 Industria textil	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
14 Confección de prendas de vestir	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
15 Industria del cuero y del calzado	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
16 Industria de la madera y del corcho, excepto muebles; cestería y espartería	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
17 Industria del papel	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
18 Artes gráficas y reproducción de soportes grabados	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
20 Industria química	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
21 Fabricación de productos farmacéuticos	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
22 Fabricación de productos de caucho y plásticos	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
23 Fabricación de otros productos minerales no metálicos	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
24 Metalurgia; fabricación de productos de hierro, acero y ferroaleaciones	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
25 Fabricación de productos metálicos, excepto maquinaria y equipo	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
26 Fabricación de productos informáticos, electrónicos y ópticos	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
27 Fabricación de material y equipo eléctrico	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
28 Fabricación de maquinaria y equipo n.c.o.p.	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
29 Fabricación de vehículos de motor, remolques y semirremolques	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
30 Fabricación de otro material de transporte	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
31 Fabricación de muebles	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
32 Otras industrias manufactureras	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
33 Reparación e instalación de maquinaria y equipo	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
35 Suministro de energía eléctrica, gas, vapor y aire acondicionado	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
36 Captación, depuración y distribución de agua	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
37 Recogida y tratamiento de aguas residuales	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
38 Recogida, tratamiento y eliminación de residuos; valorización	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
39 Actividades de descontaminación y otros servicios de gestión de residuos	Industria manufakturekoa, industria erauzleak eta besteak
45 Venta y reparación de vehículos de motor y motocicletas	Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostatua eta jatetxea
46 Comercio al por mayor e intermediarios del comercio, excepto de vehículos de motor y motocicletas	Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostatua eta jatetxea
47 Comercio al por menor, excepto de vehículos de motor y motocicletas	Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostatua eta jatetxea
49 Transporte terrestre y por tubería	Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostatua eta jatetxea
52 Almacenamiento y actividades anexas al transporte	Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostatua eta jatetxea

53 Actividades postales y de correos	Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostatua eta jatetxea
55 Servicios de alojamiento	Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostatua eta jatetxea
56 Servicios de comidas y bebidas	Handizkako eta txikizkako merkataritza, garraioak, ostatua eta jatetxea
58 Edición	Informazioa eta komunikazioa
59 Actividades cinematográficas, de vídeo y de programas de televisión, grabación de sonido y edición musical	Informazioa eta komunikazioa
60 Actividades de programación y emisión de radio y televisión	Informazioa eta komunikazioa
61 Telecomunicaciones	Informazioa eta komunikazioa
62 Programación, consultoría y otras actividades relacionadas con la informática	Informazioa eta komunikazioa
63 Servicios de información	Informazioa eta komunikazioa
64 Servicios financieros, excepto seguros y fondos de pensiones	Finantza- eta aseguru-jarduerak
65 Seguros, reaseguros y fondos de pensiones, excepto Seguridad Social obligatoria	Finantza- eta aseguru-jarduerak
66 Actividades auxiliares a los servicios financieros y a los seguros	Finantza- eta aseguru-jarduerak
68 Actividades inmobiliarias	Higiezin jarduerak
69 Actividades jurídicas y de contabilidad	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
70 Actividades de las sedes centrales; actividades de consultoría de gestión empresarial	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
71 Servicios técnicos de arquitectura e ingeniería; ensayos y análisis técnicos	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
72 Investigación y desarrollo	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
73 Publicidad y estudios de mercado	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
74 Otras actividades profesionales, científicas y técnicas	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
75 Actividades veterinarias	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
77 Actividades de alquiler	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
78 Actividades relacionadas con el empleo	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
79 Actividades de agencias de viajes, operadores turísticos, servicios de reservas y actividades relacionadas con los mismos	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
80 Actividades de seguridad e investigación	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
81 Servicios a edificios y actividades de jardinería	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
82 Actividades administrativas de oficina y otras actividades auxiliares a las empresas	Jarduera espezializatuak, zientifikoak eta teknikoak eta administrazio- eta laguntza-zerbitzuetako jarduerak
84 Administración Pública y defensa; Seguridad Social obligatoria	Administrazio publikoa, irakaskuntza, giza osasuna eta gizarte-ekintza
85 Educación	Administrazio publikoa, irakaskuntza, giza osasuna eta gizarte-ekintza
86 Actividades sanitarias	Administrazio publikoa, irakaskuntza, giza osasuna eta gizarte-ekintza
87 Asistencia en establecimientos residenciales	Administrazio publikoa, irakaskuntza, giza osasuna eta gizarte-ekintza
88 Actividades de servicios sociales sin alojamiento	Administrazio publikoa, irakaskuntza, giza osasuna eta gizarte-ekintza

90 Actividades de creación, artísticas y espectáculos	Beste zerbitzu-jarduera batzuk
91 Actividades de bibliotecas, archivos, museos y otras actividades culturales	Beste zerbitzu-jarduera batzuk
92 Actividades de juegos de azar y apuestas	Beste zerbitzu-jarduera batzuk
93 Actividades deportivas, recreativas y de entretenimiento	Beste zerbitzu-jarduera batzuk
94 Actividades asociativas	Beste zerbitzu-jarduera batzuk
95 Reparación de ordenadores, efectos personales y artículos de uso doméstico	Beste zerbitzu-jarduera batzuk
96 Otros servicios personales	Beste zerbitzu-jarduera batzuk
99 Actividades de organizaciones y organismos extraterritoriales	Beste zerbitzu-jarduera batzuk



GAINDEGIA 2030



PREST DIRA IBILBIDE BERRIRAKO EUSKARRI NAGUSIAK

Hamarkada honen hasierako mundu mailako osasun krisiak Euskal Herrian (beraz Gaindegian ere) utzi zuen arrastoa gaindituta, behategiak indarberritzeari ekin dio, eta hala eman dio hasiera ibilbide berriari.

Birdimentsionatu egin ditu bai bere egitekoa eta bai barne-egiturak.

Lehenengoari dagokionez, Euskal Herriaren argazki sozioekonomiko eguneratua — urteroko estatistikaren bitartez landutakoa — jorratzen zentratuko da. Horretarako zerbitzua kontratazioaren bitartez lotuko da, eta ez baliabide propioz.

Txosten estatistikoa landuta, horren dibulgazioa eta edukien inguruko gogoeta saioak egitea litzateke bigarren urratsa. Dibulgazioa bai informazio orokorreko komunikabideetan, bai espezializatuetan eta bai hezkuntza mailan, eskoletan eta unibertsitatean. Gogoeta saioetarako, eduki kritikoak aukeratu, eta interes taldeei aurkeztuko litzaieke (enpresaren, sindikatuaren, administrazioaren eta ingurugiroaren arloko adituei, eta abar).

Txostenok, bai eta webgunea, beste hiru hizkuntzatan argitaratuko dira, euskaraz aparte: espainola, frantsesa eta ingelesa.

Barne egiturei dagokienez, elkarteen ohiko zuzendaritza eta bazkideen batzarraz aparte, adar berria jarri du Gaindegiak jada abian. Batzorde Zientifiko izena eman zaio. Ez da izango organo erabakitzailea, aholku emailea baizik, baina erakundearen barruan garrantzi handiko betebeharra izango du.

Hamabost pertsonak osatzen dute batzorde hori. Horien artean Euskal Herrian diren unibertsitate guztietako adituak daude, katedradun, doktore eta ikertzaile. Hor dira Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoak;



Hogei urte dauka argazki honek. Donostiako merkataritza-ganberako egoitza zaharraren parean aterata dago. Ganberako areto batean burutu zen Gai degiaren sortze-batzarra.

Zuzendaritza taldea



Inaki Dorronsoro
Lehendakaria



Xabier Oleaga
Idazkaria



Joxe Mari Sors
Diruzaina



Anjeles
Iztueta



Txus
Peña



Edurne
Larrañaga



Eguzki
Urteaga



Rafa
Díez Usabiaga



Malen
Dominguez



Anjel
Rekalde



Itziar
Moreno



Carlos
Etxeberri



Miriam Herrero
Kudeatzailea

Batzorde zientifikoa



Anjeles
Iztueta



Dascon
Juhane



Arantxa
Díaz de Ilarraza



Oskar
Arantzabal



Jose Javier
Zubikarai



Alberto
Alberdi



Elena
Franco



Hélène
Larralde



Izaskun
Andueza



Julen
Bollain



Mikel
Navarro



Unai
Pascual



Unai
Villaiba



Joseba
Makazaga



Kiko
Caballero



Martin
Larraza



Jaione
Etxeberria

Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Lapurdiko Estia izeneko Industria Teknologien Goi-Eskola. Falta dira Nafarroako unibertsitatea eta UPPA Universte de Pau y des Pays de l'Adour, baina espero da bi zentroetako adituak laster izatea ba- tzordean.

Gehienak ekonomia, soziologia eta teknologia berrien arlokoak dira, baina badira administrazio publikoetako goi-kargudun ohiak ere.

Osakideen soslaiak ikusita, batzorde horren helburua da Gaindegiaren txostenei kalitate bermea eta fidagarritasuna ematea. Lehen egitekoa 2025eko eta hortik aurrerako txosten sozioekonomikoa lantzeko irizpideak proposatzea izango da.

Batzordeko koordinatzailea Anjeles Iztueta da, matematikaria eta Eustateko kide ohi, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu ohi eta gaur egun Udako Euskal Unibertsitateko Zuzendaritza Batzordeko kidea.

Organo erabakitzaile hori osatzeko, euskal lurraldeak, genero irizpidea, sozio-

ekonomiarekiko loturak eta antzerako irizpenen arteko orekak bilatu dira, bai eta pertsonen gaitasuna ere, talde benetan plurala eta eraginkorra izan dadin. Besteak beste, Agirre Lendakaria Center, MonzonLAB eta Ipar-Hegoa fundazioko kideak daude bertan, bai eta Eusko Ikaskuntzako ordezkari bat ere, gaur egungo Gaindegia behategiko lehendakari eta garai bateko Eusko Ikaskuntzako lehendakari izandakoa, Iñaki Dorronsoro, hain zuen.

Pertsona bakarra dago Gaindegian nominan, Miriam Herrero kudeatzailea. Gainerako guztiek boluntario lana egiten dute. Egitekoen finantzaketa, bestalde, finantza erakundeetatik eta Administrazio publikoetatik egitea aurreikusten da. Gaur-gaurkoz, lerrook idazteko orduan, Laboral Kutxarekin eta Nafarroako Gobernuarekin lotu dira ekarpen konpromisoak, baina laster baterako iragarrita daude beste ekarpen esanguratsu batzuk ere.

Jardun esparrua finkatuta eta egiturazko zutabeak eraikita, ibilbide berriari ekiteko moduan da Gaindegia

INTERESEKO DATU XEHEAK

● Ipar Euskal Herriko biztanleriaren ikasketa-maila eta bere bilakaera (2011–2022)

	Hezkuntza maila	2011	2016	2022	2022 (%)
Iparralde	Titulu gabea edo BEPC, ikastetxeko brebeta, DNB	66.123	57.624	50.821	19,8
Iparralde	CAP, BEP edo baliokide den mailako diploma	58.994	63.148	64.470	25,1
Iparralde	Batxilergoa, brebet profesionala edo baliokidea	40.660	43.504	48.400	18,9
Iparralde	Goi-mailako ikasketen diploma	60.228	73.473	92.938	36,2
Iparralde	Guztira	226.005	237.750	256.629	100,0
Lapurdi	Titulu gabea edo BEPC, ikastetxeko brebeta, DNB	52.993	46.835	41.736	19,0
Lapurdi	CAP, BEP edo baliokide den mailako diploma	48.717	52.149	53.400	24,3
Lapurdi	Batxilergoa, brebet profesionala edo baliokidea	35.086	37.319	41.506	18,9
Lapurdi	Goi-mailako ikasketen diploma	53.519	65.507	83.254	37,9
Lapurdi	Guztira	190.315	201.810	219.896	100,0
Nafarroa Beherea	Titulu gabea edo BEPC, ikastetxeko brebeta, DNB	8.229	6.934	5.901	23,2
Nafarroa Beherea	CAP, BEP edo baliokide den mailako diploma	7.020	7.575	7.601	29,9
Nafarroa Beherea	Batxilergoa, brebet profesionala edo baliokidea	3.887	4.248	4.948	19,4
Nafarroa Beherea	Goi-mailako ikasketen diploma	4.770	5.720	7.005	27,5
Nafarroa Beherea	Guztira	23.907	24.477	25.455	100,0
Zuberoa	Titulu gabea edo BEPC, ikastetxeko brebeta, DNB	5.008	3.974	3.266	28,0
Zuberoa	CAP, BEP edo baliokide den mailako diploma	3.382	3.560	3.606	30,9
Zuberoa	Batxilergoa, brebet profesionala edo baliokidea	1.746	1.995	2.006	17,2
Zuberoa	Goi-mailako ikasketen diploma	2.011	2.323	2.783	23,9
Zuberoa	Guztira	12.147	11.852	11.661	100,0

● Iparr Euskal Herriko familia egitura. 2011-2022

HERRIALDEA	Mota	2011	2016	2022
Iparralde	Aita bakarra duen familia	2.110	2.629	3.486
Iparralde	Ama bakarra duen familia	10.244	11.350	11.644
Iparralde	Etxe berdinean bizi den bikote familia, haurrik gabe	36.786	38.634	43.046
Iparralde	Etxe berdinean bizi den bikote familia, gutxienez haur batekin	31.566	32.131	32.210
Iparralde	Familia birkonposatua	-	-	3.350
Iparralde	Familia tradizionala	-	-	28.860
Iparralde	Guztira	80.706	84.745	90.386
Lapurdi	Aita bakarra duen familia	1.769	2.280	3.092
Lapurdi	Ama bakarra duen familia	9.026	10.049	10.437
Lapurdi	Etxe berdinean bizi den bikote familia, haurrik gabe	31.323	32.890	36.707
Lapurdi	Etxe berdinean bizi den bikote familia, gutxienez haur batekin	25.780	26.618	26.756
Lapurdi	Familia birkonposatua	-	-	2.911
Lapurdi	Familia tradizionala	-	-	23.845
Lapurdi	Guztira	67.897	71.836	76.991
Nafarroa Beherea	Aita bakarra duen familia	208	261	269
Nafarroa Beherea	Ama bakarra duen familia	789	882	794
Nafarroa Beherea	Etxe berdinean bizi den bikote familia, haurrik gabe	3.531	3.783	4.278
Nafarroa Beherea	Etxe berdinean bizi den bikote familia, gutxienez haur batekin	4.070	3.905	3.972
Nafarroa Beherea	Familia birkonposatua	-	-	326
Nafarroa Beherea	Familia tradizionala	-	-	3.646
Nafarroa Beherea	Guztira	8.597	8.831	9.313
Zuberoa	Aita bakarra duen familia	137	94	130
Zuberoa	Ama bakarra duen familia	458	432	439
Zuberoa	Etxe berdinean bizi den bikote familia, haurrik gabe	1.989	2.037	2.141
Zuberoa	Etxe berdinean bizi den bikote familia, gutxienez haur batekin	1.776	1.654	1.526
Zuberoa	Familia birkonposatua	-	-	122
Zuberoa	Familia tradizionala	-	-	1.403
Zuberoa	Guztira	4.359	4.218	4.236

● Euskal Herriko etxebizitza nagusien antzinatasuna, etxebizitza kopurua. 2016-2022

HERRIALDEA	Eraikuntza urtea	2016	2022
Iparraldea	2006tik	20.623	36.983
Iparraldea	1991tik 2005era	25.805	26.983
Iparraldea	1971tik 1990era	36.825	38.784
Iparraldea	1946tik 1970era	27.180	27.176
Iparraldea	1919tik 1945era	10.345	9.934
Iparraldea	1919 baino lehen	18.814	17.566
Iparraldea	Guztira	139.592	157.426
Lapurdi	2006tik	18.240	33.570
Lapurdi	1991tik 2005era	23.039	24.144
Lapurdi	1971tik 1990era	32.887	34.608
Lapurdi	1946tik 1970era	24.806	24.687
Lapurdi	1919tik 1945era	9.044	8.602
Lapurdi	1919 baino lehen	12.390	11.697
Lapurdi	Guztira	120.406	137.308
Nafarroa Beherea	2006tik	1.894	2.728
Nafarroa Beherea	1991tik 2005era	2.063	2.133
Nafarroa Beherea	1971tik 1990era	2.518	2.732
Nafarroa Beherea	1946tik 1970era	1.326	1.451
Nafarroa Beherea	1919tik 1945era	801	881
Nafarroa Beherea	1919 baino lehen	4.280	3.867
Nafarroa Beherea	Guztira	12.883	13.792
Zuberoa	2006tik	512	717
Zuberoa	1991tik 2005era	744	745
Zuberoa	1971tik 1990era	1.429	1.453
Zuberoa	1946tik 1970era	1.053	1.046
Zuberoa	1919tik 1945era	503	465
Zuberoa	1919 baino lehen	2.264	2.112
Zuberoa	Guztira	6.504	6.539
Araba	2006tik	25.000	15.000
Araba	1991tik 2005era	24.000	17.000
Araba	1971tik 1990era	53.000	47.000
Araba	1946tik 1970era	30.000	47.000
Araba	1919tik 1945era	3.000	7.000
Araba	1919 baino lehen	7.000	7.000
Araba	Guztira	140.000	141.000
Bizkaia	2006tik	31.000	47.000
Bizkaia	1991tik 2005era	95.000	74.000
Bizkaia	1971tik 1990era	130.000	116.000
Bizkaia	1946tik 1970era	158.000	177.000
Bizkaia	1919tik 1945era	31.000	32.000
Bizkaia	1919 baino lehen	28.000	35.000
Bizkaia	Guztira	473.000	482.000

Gipuzkoa	2006tik	25.000	19.000
Gipuzkoa	1991tik 2005era	62.000	41.000
Gipuzkoa	1971tik 1990era	76.000	98.000
Gipuzkoa	1946tik 1970era	88.000	87.000
Gipuzkoa	1919tik 1945era	18.000	17.000
Gipuzkoa	1919 baino lehen	15.000	26.000
Gipuzkoa	Guztira	283.000	287.000
Nafarroa Garaia	2006tik	26.000	32.000
Nafarroa Garaia	1991tik 2005era	58.000	76.000
Nafarroa Garaia	1971tik 1990era	76.000	77.000
Nafarroa Garaia	1946tik 1970era	55.000	44.000
Nafarroa Garaia	1919tik 1945era	14.000	9.000
Nafarroa Garaia	1919 baino lehen	25.000	21.000
Nafarroa Garaia	Guztira	254.000	258.000
Euskal Herria	2006tik	127.623	149.983
Euskal Herria	1991tik 2005era	264.805	234.983
Euskal Herria	1971tik 1990era	371.825	376.784
Euskal Herria	1946tik 1970era	358.180	382.176
Euskal Herria	1919tik 1945era	76.345	74.934
Euskal Herria	1919 baino lehen	93.814	106.566
Euskal Herria	Guztira	1.289.592	1.325.426



gaindegia.eus